

ESPAINIAKO MULTINAZIONALAK KOLONBIAN

Pedro Ramiro, Erika González eta Alejandro Pulido

MULTINACIONALAK KOLONBIAN

ESPAINIA



Egileak: *Pedro Ramiro, Erika González eta Alejandro Pulido*
Koordinazioa: *Luis Nieto eta Jorge Lago*
Diseinu grafikoa: *Álvaro Pérez Benavente*
Itzulpena: *Maier Gurrutxaga*

Argitalpen data: 2007ko azaroa

Kopiatzea baimentzen da, beti ere hedapen, informazio eta sentsibilizaziorako erabiltzen bada eta aberasteko helbururik gabe. Informazio gehiago nahi izanez gero Bakea eta Duintasuna Elkartera zuzendu.

Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia.

observa.empresas@omal.info
www.omal.info

Bakea ta Duintasuna Elkarte

Gran Vía, 40 - 5º
28013 Madril
Tel. eta faxa: 91 523 38 24
pazcondignidad@nodo50.org
www.pazcondignidad.org

Zabalbide, 19, beheko B
48006 Bilbao
Tel. : 94 655 29 44
cooperacion-euskadi@pazcondignidad.org

Lan hau 2005eko azaroa eta 2007ko maiatzaren artean burutu da. Bakea eta Duintasuna Elkarteara, Hezkuntza, Garapena eta Herri Ikerketarako-Nazio Institutu Sindikalaren Korporazioarena (CED-INS) den Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiak (OMAL) aurrera eramandako ikerketa proiektu baten ardura da. Eta gurekin ikerketa honetan lan egin zuten organizazio eta gizarte mugimenduei eskerrak eman nahi dizkiegu, beraien lana kemen eta ausardia handikoa baita gizarte borrokak kostu handia duen garaietan, bizitzarekin ordaintzera heldu litekeena, eta beraien parte hartzerik gabe koaderno honek ez luke zentzurik izango.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA
GIZARTE GAIETAKO SAILA
Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Cooperación al Desarrollo

aurkibidea

01

ESPAINIAKO MULTINAZIONALEN HEDAPENA LATINOAMERIKAN 03

- Enpresa transnazionalen boterea 03
- Enpresa espainiarren internazionalizazio prozesua 04
- Lehorreratzearen arrazoiak eta lehentasunak 07
- Espainiako multinazionalak herrialdeko buru 09
- Atzerriko enpresen inbertsioen ondorioak 11

02

KOLONBIA GLOBALIZAZIOAN 15

- Gatazka armatua 15
- Estatu terrorismoa 16
- Errezeta neoliberalak 18
- Atzerriko inbertsioak Kolonbian 19
- Petroliotik zerbitzuetara 21
- Espainia, Kolonbiako bigarren inbertsore nagusia 22
- Kolonbian inbertitzeko arrazoiak 23
- Segurtasunaren ikuspegi irrealak 25
- Multinazionalak Kolonbian 26
- Multinazionalen jardueren ondorioak 28

03

ESPAINIAKO INBERTSIOAK KOLONBIAN 31

- Lehorreratzea: urteak eta sektoreak 31
- Espainiako multinazionalen presentzia 32
- Espainiako hidrokarburu multinazionalak: Repsol auzia 34
- Espainiako elektrizitate multinazionalak: Unión Fenosa auzia 38



01

ESPAINIAKO MULTINAZIONALEN HEDAPENA LATINOAMERIKAN

03

Gaur egun, Espainiako enpresa multinazionalak hidrokarburo, elektrizitate, banka eta telekomunikazioen sektoreetako buruak dira Latinoamerikan. Gure herrialdeko hiru korporazio Kolonbiako hamabi transnazional nagusien artean daude eta Espainiako bi banku hango garrantzitsuenak dira. Egoera hau berria da, duela hamabost urte inguruko kontua. Epe labur honetan, ekonomia espainiar zein latinoamerikarrak globalizazioaren trenera igotzeko, erabateko eraldaketak jasan behar izan zituzten; honela multinazionalen eragiketa eta berauen ekintzak garatzen dituzten gizarteak berrituratuta ikus zitezten.

Latinoamerikan, 225 milioi pertsona —biztanleriaren %43,9a— txirotasunean bizi da. Politika neoliberal bi hamarkada bizi ostean, emaitza mingarria da benetan: ezberdintasunak ez dira urritu, hezkuntza eta osasunean gabezia izugarriak daude eta biztanle multzo handi batek ez du oinarritzko zerbitzuetara iristeko modurik. Halaber, ekonomi aberastasunaren kontzentrazio kezkarria sumatzen da: biztanleria latinoamerikarraren %10 aberatsenak diru-sarreraren %48a biltzen du, aldez %10 txiroenak %1,6a baino ez. Munduan, Afrika subsahariarriean bakarrik da diru-sarreraren banaketa larriagoa¹.

01.1

Enpresa transnazionalen boterea

Mundu mailako kapitalismoaren sendotzeak merkatu globalean parte hartzen dutenen berdefinitzea ekarri du. Estatu-nazioak beraien subiranotasuna uzten joan dira eta, aldi berean, konpainia multinazionalak botere eta influentzia gehiago hartu dute. XV.mendean lehenengo enpresa transnazionala izan zena sortu zenetik, — Médicitarren Banka Florentzian, European zehar sakabanatutako 18 sukurtsalekin— gaur egun arte, korporazio handi hauek garapen handia izan dute. Merkatu mundialarentzat ekoizteko asmoarekin, beraien produkzio katea herrialde desberdinetan debirtsifikatzen eta banatzen duten enpresa multinazionalak, herrialde askok baino gaitasun ekonomiko handiagoa biltzen dute gaur egun: Wal-Martek Austriako Nazio-Produktu Gordina baino salmenta kopuru altuagoa du, ExxonMobilek Argentinak eta Kolonbiak elkarturik dutena baino handiagoa⁴.

¹ Guillermo P. Perry, et al., *Poverty Reduction and Growth: Virtuous and Vicious Circles*, Washington, Munduko Bankua, 2006.

² Multinazionala izan dadin, enpresa batek kanpoko herrialderen baten fabrikazio instalazio zerbitzuak edo zerbitzuen gestio zuzeneko instalazioak izan behar ditu; ez da nahikoa beste herrialde batzuetara produktuak banatu edo esportatzea multinazional kontsideratzeko.

³ Antoni Verger, *El sutil poder de las transnacionales*, Globalizazioan Zorraren Behatokia, Bartzelona, Icaria, 2003.

⁴ Munduko transnazional handien arteko diru-sarreraren alderaketa [“Global 500”, Fortune, 2006ko uztaila] eta nazio-produktu gordinaren arabera sailkatutako herrialdeen zerrenda [Banco Mundial-aren datu-basea linean].

Atzerrian aktibo gehien dituen ehun korporazio transnazioaletatik 85ek; Estatu Batuak, Japon eta Europako Batasunean dituzte etxe matrizeak eta horietako %60a petrolio, automobil, farmazia, telekomunikazio edo elektronikaren alorrean aritzen da⁵.

Espainiako multinazionalen dagokienez, mundu mailan neurri ertaina dutela esan daiteke. Euren diru-sarrera kopuruaren arabera, planetako 500 transnazionalen artean gure herrialdeko 9 daude: Repsol YPF, Santander, Telefónica, Endesa, Cepsa, BBVA, Altadis, ACS eta Iberdrola. Hori bai, atzerrian dituzten aktiboak baino ez badira kontutan hartzen, Espainiako enpresak postu askotan egiten dute gora: hiru daude (Telefónica, Repsol YPF eta Endesa) munduko nagusien artean. Eta finantza-korporazio handietaz ari bagara, egoera antzekoa da (ikus 1 taula). Beraz, kontestu mundialean gure multinazionalen neurri ertaina izatea egotzi ahal zaien arren, beraien garrantzi kualitatiboa nabarmenki nagusia da baldin eta sailkapen irizpideak bere internalizazio graduari kasu egiten badio.

1 TAULA MUNDUKO MULTINAZIONAL ESPAINIAR NAGUSIAK

ENPRESA	DIRU-SARREREN ARABERAKO KOKAPENA ^A	DIRU-SARRERAK GUZTIRA ^B	INT GRADUAREN ARABERAKO KOKAPENA ^C	AKTIBOAK ^B ATZERRITARRAK	GUZTIRA
Repsol YPF	84	56.423	49	29.846	53.044
Santander	93	53.848	15 ^D		774.462
Telefónica	108	48.833	33	43.244	86.448
Endesa	280	22.650	52	28.786	65.423
BBVA	410	16.339	26 ^D		416.209

^A Espainiako transnazionalen kokapena munduko 500 multinazional nagusien artean, 2005eko diru-sarreraren kopuruaren arabera.

^B Balorea milioi dolaretan.

^{C, D} Finantzarioak ez diren munduko 100 transnazional nagusien eta 50 transnazional finantzario nagusien arteko kokapena, 2003ko internalizazio graduaren arabera.

Iturriak: "Global 500", Fortune, 2006ko uztaila; UNCTAD, Informe sobre las inversiones en el mundo 2006, New York eta Geneva, Nazio Batuak, 2006.

01.2

Enpresa espainiarren internazionalizazio prozesua

1980ko hamarkada bukaera arte funtsean atzerriko diru sarrerak jasotzen zituen Espainia bezalako herrialde bat, 1999 eta 2000 urteetan, Latinoamerikako inbertsore nagusienetakoa izatera iritsi zen. Espainiako ekonomiak hamarkada eskasean jasan zuen erabateko metamorfosiak, garatzen ari zen globalizazio ekonomikoaren dinamiketara sartzeko beharrari kasu egin zion.

⁵ UNCTAD, Informe sobre las inversiones en el mundo 2006, New York eta Geneva, Nazio Batuak, 2006.



Atzera begirada bat eginez, 60ko hamarkadan, Espainiako atzerriko inbertsioak lehen gaien bilaketan oinarritzen ziren, arrantza eta elikagaien alorretan, eraikuntzan eta bankan. Ondorengo urteetan aldaketa erregulatzailerik desberdinak gertatzen joan ziren; 1986an gorenera iritsiz, Espainiako estatua orduan Europako ekonomi Erkidegoa deitutakora sartzean. Felipe González presidente zen garaian, Gobernuak ekonomi liberalizazio prozesu bat jarri zuen martxan merkatu berri honetan partaide izatearen irizpideak bete zitezene⁶. Epe horretan jada, atzerrian zenbait jabetza lortu ziren, batez ere Latinoamerika eta Estatu Batuetan, 1992arte Zuzeneko Inbertsio Atzerritarra (ZIA)ko sarrera eta irteerak Europako Batasunera zuzendu ziren bitartean.

1990eko hamarkadaren hasieran, politika neoliberalak gorakadan zeuden unean, aldi berean Espainiako multinazionalak Latinoamerikako nagusien artean kokatzen lagundu zuten bi prozesu osagarri eman ziren. Fenomeno hauen denbora kointzidentzia ez zen ustekabekoa izan, biek logika global berdinari baino ez zieten erantzuten: ortodoxia neoliberalak aurre esandako errezeten aplikazioari.

Lehenik eta behin, 1989tik aurrera Latinoamerikan paradigma ekonomiko berri bat abiaraztea erabakigarria izan zen: *Washington adostasuna*⁷. Bertan adostutako neurrien artean herrialdeko konpainia estatal nagusien pribatizatzea eta merkatuen liberalizazioa zeuden, atzerriko transnazionalen sarrera errazteko asmoz. Gainera, gobernuaren eskuartzea urritzea proposatzen zen produkzio-jardueran. Ideia zerrenda honi jarraituz herrialdeko gobernuak, merkataritza eta finantza liberalizazioa, Estatuarenak ziren enpresen salmenta eta inbertsio publikoaren kontzentrazio sendoa bezalako jarduerak zorrotzak abian jarri zituzten. ZIA beraz, herrialde hauen finantziario bide nagusienetako bat bezala gelditu zen. Horrela, heldu ziren korporazio transnazionalak herrialdera eta zerbitzu publiko, estatu enpresa eta baliabide naturalez jabetu ziren. Urte horietan *boom* pribatizatzailea gertatu zen: 1986 eta 1999 urteen artean 396 salmenta eta transferentzia eman ziren Latin Amerikako alor pribatura; honela, mundu osoko Hegoaldeko herriladeetan gertatutako pribatizazio guztien balioaren erdia baino gehiago suposatuz. Izan zuen garrantzia zela eta, herrialdean gertatu ziren pribatizazioen %57a zerbitzu publikoen alorrean izan zela esan behar da⁸.

Aldi berean, Espainiako estatuan urte horietan herrialdeko enpresak neurri eta ondasunean hazi eta beste merkatu batzuetan lehiatzen ausartu zitezene fusio, berregituratze eta pribatizazio segidak gertatu ziren. Zentzu honetan, politika liberaletarantz zeraman bultzada Maastricht-ko Tratatuan eta Lisboako Estrategian osatu zen, helburua Europako Batasuneko ekonomia «soilik hamar urtetan munduko dinamiko eta lehiakorrena» izatea zelarik. Lehiakortasun handiagoen bilaketak bertako ekonomiak gutxiago babestea eta merkatuak inbertsioetara eta Europako beste herrialdeetako multinazionalak zabaltzea ekarri zuen; era berean, jarraian enpresa kontzentrazio prozesu gogor bati ekin zioten enpresa publiko gehienak pribatizazioa azkartuz. Egitura erreformak, Felipe González-en exekutiboekin jada ezarrita zeudenak, José María Aznarren presidentzia garaian are gehiago bultzatu ziren, azken honen Gobernuak Europako programa pribatizatzaile handienetakoa abiaratu zuen, azkenengo hauen garaian ia 50 enpresa publiko saltzera heldu ziren⁹.

⁶ Ramón Fernández Durán, *La compleja construcción de la Europa superpotencia*, Bartzelona, Virus, 2005.

⁷ John Williamson (dir.), *Latin American Adjustment, How Much has Happened?*, Washington, Institute for International Economics, 1990.


⁸ Ramón Casilda Béjar, *La década dorada. Economía e inversiones españolas en América Latina*, Madril, Alcalako Unibertsitateko Publikazio Zerbitzua, 2002.

⁹ Mauro F. Guillén, *El auge de la empresa multinacional española*, Fundación Rafael del Pino, Madril, Marcial Pons, 2006.

Telefónica, 1998eko abendura arte monopolio egoeraz gozatu zuenak — behin betiko telekomunikazioen arloa liberalizatu zeneko garaia—, jada enpresa latinoamerikarrak erosten hasita zegoen, 1997an bere pribatizazioara heldu aurretik. Une honetatik aurrera herrialdean bere inbertsioak gehitu zituen eta hizketa espainiardun merkatuetako buru bilakatu zen: 1990 eta 2002 urteen artean, Telefónica-k 30.500 milioi dolar beste enpresa batzuetaz jabetzeko erabili zituen.

Banka sektorean, 1980eko hamarkadaren erdialdera arte munduko babestuenetako izan zenean, zazpi korporazioen artean banatzen baitzen merkatua¹⁰, prozesu kontzentrazioen segida azkarra eman zen baita ere, azkenean bi talde handi gelditu ziren: BBVA —Bilbao eta Bizkaiko bankuen eta estatutuko Argentariaren arteko fusioaren ondorioa— eta Banco Santander Central Hispano — Banco Central, Hispano-Americano eta Santanderren arteko fusioen emaitza—, beranduago Banesto-ren jabe ere egingo zen eta izen korporatibotzat Santander hartu zuen. 1997 eta 2002 urteen artean, BBVA-k 7.800 milioi dolar inbertitu zituen 34 finantza entitate lortzeko Latinoamerikan, Santander-ek berriz 12.300 milioi herrialde berean 27 banku erosteko.

1 GRAFIKOA ESPAINIAKO DIRU-SARRERAK LATINOAMERIKAN ETA MUNDUAN



Iturria: Turismo eta Komertzio Estatu Idazkaritza; Industria, Komertzio eta Turismo Ministeritzako datuetatik ondorioztatutakoa, 2006.

¹⁰ Zazpi banku handi hauek Banco Español de Crédito (Banesto), Banco Central, Banco Hispano-Americano, Banco de Vizcaya, Banco de Bilbao, Banco Santander eta Banco Popular-a ziren.



Energia arloari dagokionez, Repsolek, Espainiako Gobernuak sortu zuenak, 1986an INH -ren ondorengo bezala¹¹, bere pribatizazio prozesua hiru urte beranduago hasi zuen eta 1997an osotu zuen. Bestalde, Gas Natural 1996an hasi zen pribatizatzen eta, elektrizitatearen arloan, fusio eta berregituratzeen emaitza hiru enpresa handi izan ziren: Endesa —1988an pribatizatzen hasi zena— Iberdrola eta Unión Fenosa. Lortutako errekurtsio, kapital eta ezagutzarekin, energia enpresek beraien zabalkundea Latinoamerikan ezartzen ez zuten zalantzarik izan: Endesak 8.100 milioi dolar inbertitu zituen 1992 eta 1999 urteen artean, 1997an Txileko Enersis estatu enpresaren %29a eroziz, eta Repsol-ek 1999an Yacimientos Petrolíferos Fiscales (YPF) enpresa handia 15.000 milioi dolarren truke.

Espainiako ZIA 1996an BPGd-ren %0,9a zen, 2000 urtean %9,6 izango zela suposatzen da. Espainia munduko seigarren inbertsore nagusia izan zen 1999an, atzerriko inbertsioen %66a Latinoamerikan bildu zeneko urtean hain zuzen ere (ikusi 1 grafikoa), eta zazpigarrena 2000 urtean. Azken finean, eta ekonomista desberdinek bibliografian erabilitako terminologiari jarraituz, Espainiako enpresak «adin-nagusitasunera» heldu zirela ondorioztatu daiteke; multinazional bilakatu ziren.

01.3

Lehorreratzearen arrazoiak eta lehentasunak

Espainiako multinazionalen zabalkundearen helburua Latinoamerika izateak motibazio ekonomiko soilarekin du zerikusia. Herrialde honetan lehorreratzeak ia konpetentziarik ez zuten merkatuen bilaketarekin du zerikusia; zeintzuetan errekurtsioen erabilgarritasuna askoz ere eskuragarriagoa zen, eta lan eta ingurugiro gastuak murrizten ziren inbertsioa erakartzeko. Zentzu honetan, hizkuntza eta kultura amakomunean zituztelako Espainiako enpresek, Latinoamerikan zabaltzea aukeratu zutenaren topikoa ezin da sostengatu. Errealitatea beste bat da, ozeanoaren alde bietan neurri neoliberalen prozesuak betetzearen denbora kointzidentziak asko erraztu zituen gauzak. Izan ere, fusio eta pribatizazio prozesuen ostean, gure herrialdeko korporazio nagusiek kapitala eta eskarmentua bildu zituzten atzerrian inbertitu ahal izateko. Iberia eta Telefónicak izan ezik, beste enpresa guztiek (Unión Fenosa, Endesa, Repsol, Gas Natural, Iberdrola, BBVA eta Santander) kontzentrazio enpresarialak jasan ostean jarri zituzten abian beraien inbertsioak.

Enpresak eurak erabilitako beste arrazoi bat, Europako merkatuen liberalizazioak lehiakortasun handia sortu izana da, horrela irabazi tartea gutxituz. Adibidez, Espainiako merkatuan kontsumo elektrikoaren prezioak jeitsi egin ziren Europako Batasunaren parte izateak eskatzen zuen bateratasun irizpideak betetzeko, honek ezinbestekoa egiten zuen merkatu berriak ezartzea ekonomi hazkundea mantendu ahal izateko. Gainera, Latinoamerikan lehorreratu izana azaltzeko beste arrazoi batzuk ere badaude. Barne merkatuaren asetzea, bertan ezinezkoa egiten zela hazkunde maila mantentzea izango zen beste arrazoi bat. Horrela bada garrantzitsua izan

¹¹ Hidrokarburoen Institutu Nazionala (INH) 1981ean sortu zen, Espainiako Estatuan hidrokarburoen alorreko estatu partizipazioak biltzeko helburuarekin.

zen, eredu kapitalistan, enpresaren tamaina handitzea defentsa estrategia bezala beste konpainia transnazional batzuk hauetaz jabetuko zirenen mehatxuaren aurrean.

Motibazio hauek ikusmugak zabaltzera eramane zuten, baina: Zergatik horrenbeste gogo lurralde latinoamerikarrean? Azalpena multinazionalak euren eman zuten: BBVAren Ikerketa Zerbitzuaren arabera, 1999an Alemanian merkatu kuota puntu bat irabazteak 2.200 milioi dolar balio zituen; kuota berdina, Argentinan 196 milioi dolar edo Mexikon 205 milioi dolarreko kostua suposatzen zuen bitartean¹². Hau da, 1990eko hamarkadan Latinoamerikan hazteko aukera asko eman ziren eta Europan oso gutxi.

Espainiako inbertsioaren gehiengoa Brasil eta Argentinan egin zen: bi herrialde hauek ZIAren %60a jaso zuten. Lau herrialdek bakarrik —aipatutako biak gehi Mexiko eta Txile— Espainiako inbertsioen %86a jaso zuten¹³. Argentinan multinazionalak, Carlos Menemen garaian (1989-99), 60 enpresa publiko baino gehiago pribatizatu izana aprobetxatu zuten, 60.000 milioi dolarrak gaintzen zituzten aktiboekin, YPF petroleo konpainia, Entel telefonikoa eta Aerolíneas Argentinas zeuden zeuden hauen artean; Repsol, Telefónica eta Iberia, jabetu ziren hauetaz hurrenez hurren. Bestalde, Kolonia izan da Espainiako Estatutik ZIA gehien jaso duen herriade latinoamerikarra 2006arte, inbertitutako guztiaren %3a jasoz.

Espainiako enpresek preferentzia izan dute diskrezioa duten gobernuak dituzten herrialdeetan inbertitzen, hau da, ez daude parlamentua edo botere judiziala bezalako beste instituzio batzuen kontrolpean. Joera hau begibistako da bereziki lehen publikoak ziren enpresetan, Telefónica, Repsol eta Endesa¹⁴. Adibidez. Hala ere, jarrera hau paradoxikoa da: enpresek, herrialde hauetan sartu ostean, kanpoko kontrolak dituzten gobernuak eskatzen dituztelako, horrela beraien ezarpena erraztu zituzten baldintzak aldatzea ekiditeko.

Espainiako inbertsioaren zati handiena alor gutxi batzuetan kontzentratzen da. 1998 eta 2001 urteen artean inbertsioaren bi heren zerbitzuen alorrean: %20a finantza zerbitzuetan, %19a garraio eta telekomunikazioetan eta %18a energia, petrolio eta uraren zerbitzuetan. Espainiako multinazionalen inbertsioak bideratu ziren sektore garrantzitsuenak banka, aseguruak, energia, telekomunikazioak, garraioa eta ostalaritza izan ziren; hau da, sendo kontzentratu eta araututakoak, sektoreak irabazi gehien ematen dituztenak direlako¹⁵. Merkatu mundialerantz produkzioa bideratzen duten transnazionalen joera orokorraren kontra, kasu honetan barne merkatura bideratutako zerbitzuetara zuzentzen saiatu da. Pribatizazioak, erregulaziorik gabeko egoera eta atzerriko kapitalari zabaltzearen egoeraren aurrean bakarrik zentzua izan zezaketen ekintzak izan ziren. Beraz, prozesu hau berezi eta errepikaezina da, enpresa publikoak pribatizatzea eta herri konpainiak erostea behin bakarrik egin daitekeelako.

¹² William Chislett, *La inversión española directa en América Latina: retos y oportunidades*, Madril, Nazioarteko ikerketa eta Estrategia Ikerketen Elkano Erret Institutua, 2003.

¹³ Estatuko Komertzio eta Turismo Idazkaritza; Industria, Komertzio eta Turismo Ministeritza, 2006.

¹⁴ Mauro F. Guillén, 2006, *op. cit.*

¹⁵ *Ibid.*

01.4

Espainiako multinazionalak, herrialdeko buru

Latinoamerikan, zortzi enpresek bakarrik (BBVA, Santander, Endesa, Iberdrola, Unión Fenosa, Gas Natural, Telefónica eta Repsol YPF) herrialdean egindako Espainiako inbertsioaren %80a inguru monopolizatzen dute. Zortzi multinazional hauen fakturazioak Espainiako Estatuaren BPGdren %20a gutxi gora behera suposatzen du¹⁶. Horietatik lau—Telefónica, Repsol YPF, Endesa eta Iberdrola— inguruko 30 enpresa handienen artean daude (ikusi 2 taula), eta hurrengo sektoreetako buru dira hurrenez hurren: Repsol YPF Latin Amerikako petrolio enpresa handiena da; Telefónica telekomunikazioen arloko burua da; Endesak elektrizitatearen merkatua menperatzen du eta Santander herrialde kolonbiarrean ari diren bankuen artean nagusia da.

Espainiako konpainien garrantzia egiaztatzeko, multinazional garrantzitsuenen taldean parte hatzeak 2005ean %14arte gora egin zuela esatea nahikoa da¹⁷. Gainera, Kontinentean lanean

2 TAULA LATIN AMERIKAKO FINANTZIEROAK EZ DIREN ENPRESA TRASNAZIONAL NAGUSIAK, 2004KO SALMENTEN ARABERA

2004	2002	1999	ENPRESA	HERRIALDEA	SEKTOREA	SALMENTAK ^A	% ^B
1	2	2	General Motors	AEB	Automobila	18.800	10
2	1	3	Telefónica	Espainia	Telekomunikazioak	17.136	45
3	4	9	Wal-Mart	AEB	Banaketa komertziala	14.440	5
4	6	4	Daimler Chrysler	Alemania	Automobila	13.984	8
5	5	1	Volkswagen	Alemania	Automobila	11.846	11
6	-	-	Bunge	AEB	Nekazal industria	10.677	42
7	25	5	Endesa	Espainia	Elektrizitatea	9.710	44
8	7	6	Ford	AEB	Automobila	8.668	5
9	14	-	Telecom Italia	Italia	Telekomunikazioak	8.524	22
10	3	20	Delphi	AEB	Automobila	6.969	24
12	8	8	Repsol YPF	Espainia	Hidrokarburoak	6.666	15
29	-	-	Iberdrola	Espainia	Elektrizitatea	3.047	24

^A Salmenten balioa milioi dolarretan adierazten da.

^B Latin Amerikako salmenten portzentaia mundu osokoarenari dagokionez.

Iturria: CEPAL, *La inversión extranjera en América Latina y el Caribe*. Santiago de Chile, Nazio Batuak, 2004-2006.

¹⁶ Juan Manuel Ramírez Cendrero, "Inversiones de las multinacionales españolas en Mercosur". *Boletín OMAL*, nº11, 2005eko abendua.

¹⁷ CEPAL, *La inversión extranjera en América Latina y el Caribe*. Santiago de Chile, Nazio Batuak, 2006.

ari diren neurri txikiagoko enpresa multinazional askoz gehiago daude: ENCE, PRISA, Aguas de Barcelona, Mapfre, ACS, FCC, Ferrovial, Acciona, OHL, Cepsa, Prosegur, Pescanova, Inditex, Abengoa, Alsa, Roca Corporación, Barceló, Sanitas, CAF, Cintra, RiU eta Sol Meliá, besteak beste.

Telefónica Latinoamerikako finantza enpresa ez den bigarren enpresa transnazionala da jada, General Motors baino ez du aurretik. Bere salmenta neurriagatik, Telefónicak mundu mailako multinazional handienak, Repsol YPF, bikoizten du. Nagusitasun hau ez da harritzekoa baldin eta konpainiaren datu ikusgarriak aztertzen baditugu: Amerikako kontinenteko 19 herrialdetan du presentzia, eta Latinoamerikak enpresaren mozkin osoaren %41,5a suposatzen du. Laburbilduz, orain hamar urte estatu enpresa zena gaur egun korporazio transnazional handi bat bezala erabat bermatu da.

Bere burtsako kapitalizazioari dagokionez, Santander-a Espainiako Estatuko lehen bankua da eta munduko hamargarren finantza erakundea. Santander-ak 2005ean 6.220 milioi euroko irabazia lortu zuen, lehenago Espainiako enpresek lortu gabeko kopurua, aurreko urteari zegokionez %72,5eko igoera suposatzen zuen honek. Bankuaren mozkinen %35a 2004 urtean Latinoamerikatik zetorren. Lurrade honetan 15 herrialdetan egiten du lan, eta bere aktibitate nagusiak Brasil, Mexiko, Txile, Argentina, Puerto Rico, Venezuela eta Kolonbian garatzen ditu.

BBVAk Latinoamerikako 14 herrialdetan egiten du lan eta 2005ean 3.806 milioi euroko mozkin izan zuen, aurreko urtean baino %30,2 gehiago. Bere mozkinaren %45ak Latinoamerikan du jatorria, Espainiako merkatuan lortzen dena %40a den bitartean. Hain dago finkatuta lurraldean BBVAko kontseilari delegatu berak, José Ignacio Goirigolzarrik, baldin eta mozkinaren jatorriari erreperatzen bazaio bere entitatea batez ere latinoamerikarra dela adierazi duela, plantillan ikus daiteke joera hau: 51.370 langile Amerikan, 1.982 munduko beste lurraldeetan eta 30.765 Espainiako Estatuan, hemen helburua plantilla murriztea da¹⁸.

Endesa Latinoamerikako lehenengo hamar multinazionalen aurretik kokatzen da eta elektrizitate sektoreko lehenengoa da. Txile, Argentina, Kolonbia, Peru, Brasil eta Ertamerikan aurkitu dezakegu. Herrialde hauetako aktibitateak mozkin osoaren %31a ematen dio, negozio ildo desberdinekin osatzen da: sektoreko enpresa klabeak erosi, errentagarritasun gutxien duten lanen azpikontratazioa eta megaproiektuak eraikitzearekin. 1997an Txileko Enersis enpresaren sarrerak, Latinoamerikan ibilbide pribatazailea hazten lagundu zion. Gaur egun, multinazionalaren zabalkunde internazionalak, beste korporazio batzuk absorbitzeko etengabeko asmoekin batera, Madrilgo burtsan azkenengo 4 urteetan %80an gora egitea lortu du¹⁹.

Iberdrola, Espainiako bigarren enpresa elektrikoak, 2005ean 1.382 milioi euroko irabazia izan zuen, aurreko urtean baino %15,6 gehiago. Konpainiak bere lehenengo inbertsioa Latinoamerikan 1995ean egin zuen, Electropaz eta Elfeo Bolivian eskuratu zituenean, 1992 eta 1999 urteen arteko

¹⁸ Mariano Guindal, "Así se roba al Sur". La Vanguardia, 2006ko maiatzaren 2a.

¹⁹ Cono Sur Sustentable, *Endesa en América Latina: impactos en la matriz energética y la sustentabilidad regional*, Santiago de Chile, 2006.



epea «merkatuen zabalkundea» bezala izendatu zutena. Gaur egun, Mexiko —sektore elektrikoaren buru den herrialdea—, Guatemala, Brasil, Bolivia eta Txilen aurkitzen da.

Fusio garai astoratu eta Espainiako merkatu elektrikoaren aliantzen ostean, Unión Fenosak herrialdeko hirugarren konpainia elektrikoa izaten jarraitzen du. 2006an, aurreko urtearekin alderatuz %41,4an gehitu ziren bere irabazi operatiboak²⁰. Munduko hamaika herrialdetan egiten du lan, horietatik zazpi Latinoamerikan: Panama, Guatemala, Dominikar Errepublika, Costa Rica, Nikaragua, Mexiko eta Kolonia. Izan ere, jaso zituen irabazien laurdena azkenengo bi herrialde hauetako aktibitateetatik heldu zitzaion. Ez da harritzekoa bere diru sarreraren zati garrantzitsu baten jatorri latinoamerikarra, elektrizitatea sortzeko duen potentzia guztitik, %27,4 a Espainiako mugetatik kanpo datorrela eta batez ere lurrate horretan finkatzen dela kontutan hartzen bada. Multinazional elektrikoaren zabalkundea gasaren kate integratuaren kontrolaren aldeko apostuan oinarritu da—erauzketatik komertzializaziora arte— eta bere negozio interazionalak finkatzean. Izakera internazional hau korporazioko profesionalen erdiak baino gehiagok Espainiako Estatutik kanpo beraien zerbitzuak eskeintzeak adierazten du²¹.

Repsol YPF, Espainiako multinazionalak bere ekintzak mundu osoan garatzen ditu. Latinoamerikan eta Karibean bakarrik, 14 herrialdetan aritzen da. Konpainiak irabazi errekorra izan zuen 2005ean 3.120 milioi euroko irabaziarekin, aurreko urtean baino %29,2 gehiago. 2006an Repsol berriro ere, diru sarrerak kontutan hartuz gero, Espainiako lehenengo enpresa transnazionala izan da, aldi berean laurogei eta laugarren postua du planetako multinazional nagusien artean. Hidrokarburoen sektorean, munduko petroleren artean hogeitabatgarrena da, aktibitate honetan bederatzigarren transnazional nagusia da²². Latinoamerika enpresa hau indartsuagoa egin den lekua izan da: Repsol lurraldeko petrolio eta gasaren sektoreko burua. Bere hidrokarburo erreserben %95a 2005ean eta 2004ko ustiapenen emaitzen %88a Latinoameriketatik etorri ziren²³. Repsol eta YPFren aktibitateen integrazioen emaitzaz sortutako enpresari zabalkunde botere handia eman zion Latinoamerikan²⁴. Harrezkerotik, Repsol YPFk bere aktibitateen zati handi bat Argentinan bildu zuen, baina bere ekintzak bere ia beste kontinente guztietara ere zabaltzen ziren: Bolivia, Brasil, Txile, Kolonia, Kuba, Ekuador, Guyana, Mexiko, Peru, Surinam, Trinidad eta Tobago eta Venezuela.

01.5 Atzerriko enpresen inbertsioen ondorioak

Latinoamerika berriro kolonizatze honek, lurraldeko herrietan gizarte, ingurugiro eta kulturaren ondorio izugarriak izan zituen²⁵. Beste enpresa batzuren kasuak nabarmenak diren arren —

²⁰ Unión Fenosaren irabazi globalak aurreko urtean baino 23% baxuagoak izan ziren, 2006an ez zelako aktiborik saldu. 2005eko lanaldiak 109,7%ko irabazia eman zuen Aunaren salmentari esker. Hori dela eta, irabazi operatiboak kontutan izan dira, honen influentzia deskontatzeko eta datuak konparatu ahal izateko.

²¹ Unión Fenosa, *Informe Anual*, 2006.

²² *Petroleum Intelligence Weekly* aldizkariak 2006an egindako rankingaren arabera. Enpresen zerrenda mundial hau irizpide batzuk kontutan hartuta sortu da: erreserbak, produkzioa, fintzeko gaitasuna, salmentak, diru-sarrerak, irabaziak, aktiboak eta langileak.

²³ 2005 eta 2006 urteetako urteko txostenen arabera egindako kalkuluen arabera.

²⁴ YPF erostearekin, Repsolen hidrokarburoen produkzioak %169an gora egin zuen eta bere erreserbak %364an.

²⁵ Miquel Ortega (coord.), *La deuda ecológica española. Impactos económicos y sociales de la economía española en el extranjero*, Sevilla, Muñoz Moya Editores, 2005.

Uruguayko ENCE paper fabrika edo Aguas de Barcelona Konpainia Argentinan eta Kolonbian, Espainiako energia multinazionalak dira *mereximendu* gehien bildu dituztenak beraien curriculumean. Endesaren kasua adibidez, mundu osoan ezaguna den bere megaproiektuak Txileko Bio Bion, Ralco urtegian izandako eragina, hau eraikitzeak ingurugiroan, gizartean eta kulturaren eragin larria izan zuen, eta enpresak gobernuari egindako urteetako presioen ostean abian jartzen utzi zuen, ondorioz komunitate mapuche-pehuencheak bere arbasoen lurretatik desplazatu eta deserrotuz. Baina behar bada Repsol YPF²⁶ eta Unión Fenosa izango dira ondorio negatibo gehien sortu dituzten Espainiako transnazionalak, adibidez kasu kolonbiarraren azterketan ikusiko den bezala.

Orokorrean, Latinoamerikako herrialde gehienetan atzerriko transnazionalen irudi txarra zabaldu da. Eta hauen artean Espainiakoak daude kontinentean presentzia handiena dutenak direlako. Zentzu honetan, 2004an, herritarren %29ak bakarrik uste zuen kanpoko inbertsioak beraien herriarrentzat onuragarriak zirela, kontra agertzen zen %35aren aurrean²⁷. Herriaren kezak multinazionalak errekurtsio naturalen espoliazio eta harrapaketa, zerbitzu publikoen pribatizazioa eta merkatu-laboralaren desregularizazioaren erantzuletzat jotzen dituztelako dira. Protestak gogorak izatera heldu dira, Cochamban (Bolivia) 2000 urtean gertatu zen *Guerra del Agua* deitutakoan adibidez. Han herri-erresistentziak, Bectel multinazionalak eta Espainiako Abengoa korporazioak zuzendutako konsortzioak herriko konpainiaz jabetu zitezenean eta honela herriaren ur zerbitzua pribatizatu zedin ekidin zuen.

Bestalde, multinazionalen kritika egin izan zaizkie herrialdeko erreforma neoliberal inplemetatuetatik etekina ateratu duten bakarrak izan direla leporatzen zaielako. Gainera, egitura akordio neurriak justifikatzeko egin ziren promesak bete ez direnaren pertzepzioa dago. Desberdintasunak konpontzen laguntzetik urruti, enpresa transnazionalak egin dutena beraien inbertsioak egin dituzten txirotutako herrialdeetan, beraien mesederako, desberdintasun hauetaz baliatzea izan da. Izan ere, Espainiako inbertsioen motibazioek Latinoamerikan ez diete beharrezko diren oinarriko materialen babesa hobetzearen helburuei erantzun, irabazi ekonomiko handiena lortzearen logikari baizik. Zentzu honetan adierazgarria da azkenengo bi hamarkadetan Latinoamerikan txirotasunak ez duela behera egin ikustea; nahiz eta herrialdea bere ekonomia atzerriko kapitalei zabaltzean, ustez, modernizatu.


Hala eta guztiz ere, Latinoamerikak lehentasunezko lekua izaten jarraitzen du Espainiako multinazionalentzat, hori dela eta hauetatik gehiengoak ez du inguru hau utziko. Mende honen hasierako krisi ekonomikoak beraien kontuak emaitza eta burtsa kotizazioetan urritu zituen arren, Konpainiak bertan gelditu ziren eta gehienak ez ziren egoera konplikatzen ari zela zirudien herrialdeetatik ateratu. Orain, lurralde honetako hazkunde ekonomikoa goraka hasi da eta apostu latinoamerikarraren emaitzak jasotzen ari dira. Horregatik, beste inbertsio bolada bat prestatzen

²⁶ Marc Gavaldà, *La recolonización. Repsol en América Latina: invasión y resistencias*, Barcelona, Icaria, 2003.

²⁷ Latinobarometroaren Txostena 2004an, : "El regreso al continente latinoamericano"-n aipatu zen. *El País*, 2006ko martxoaren 14a.

ari dira, ez dena 1990eko hamarkadakoaren mailakoa izango, baina benetan hautemangarria izango dena: 2010 urtera arte, Banco Santander, Telefónica, Repsol YPF eta Endesak, guztira, 20.700 milioi euro lurralde honetan inbertsioak egiten erabiliko ditu²⁸.

²⁸ "Latinoamérica empieza a lucir en los resultados". *El País Negocios*, 2006ko azaroaren 12a.



02

KOLONBIA GLOBALIZAZIOAN

45 milioi biztanlerekin, Kolonbia Latinoamerikako herrialde jendeztatuena da, Brasil eta Mexikoren atzetik. Harreman komertzialetarako kokapen estrategiko pribilegiatua du, Ozeano Atlantiko eta Baretik irteerak, Ertamerika eta Hegoamerikako konexio giltza izateaz gainera. Klima eta ekosistema desberdinak ditu, eta munduko biodibertsitate handiena duen bigarren herrialdea da.

Kolonbia Latinoameriako demokrazia ezarrietakotzat hartzen da: bere gobernariak sufragio unibertsala bide aukeratu dira eta diktadura aldi labur bat bakarrik izan du 1950eko hamarkadan. Halarik ere, herrialdeak kontinenteko gizarte gatazka eta gatazka armaturik zaharrena bizi du, desagertutako eta eraildako zerrenda izugarri bat utziz. Hori horrela izan arren, ez da traba izan beste herrialde latinoamerikarretako dinamika berdina ematea politika neoliberalak abian jartzeko orduan. Hori bai, xehetasun bat gehiagorekin: Kolonbian, herrialdea globalizazio ekonomikoan sartzeko prozesuak biolentzia estatal eta paraestatal baten kontestuan gertatu da, hauetatik enpresa transnazionalak ez aldentzeaz gain, beraien aktibitateak garatzeko aprobetxatuz.

02.1

Gatazka armatua

Kolonbian, biolentzia gararirik gogorrenak modernizazio ekonomiko prozesuekin daude harremanetan. Horrela, hurbilketa historiko bat eginez gero, edozein gizarte edo herri adierazpenen aurkako bi biolentzia garai eman zirela esan daiteke.

Lehenengo garaia, XX.mendearen hasieran, industrializazio prozesu berankorra eta kapitalizazioaren dinamiken integrazio prozesu berankorra izatearen bereizgarria izan zuen, banana eta petrolioaren sektoreko langile mugimenduaren sorrerari bidea emanez. Langile bananeroen grebaren ostean, hasi berria zegoen langileria sarraskitu zuten: 1928an, ejerzitoak 3.000 langile baino gehiago eta bere familiak hil zituen United Fruit Company estatubatuar multinazionalaren interesak babesteko. Gero, Jorge Eliécer Gaitán herritarren buruaren erailketak, 1948ko apirilaren 9an, hurrengo hamarkada arte luzatuko ziren gatazka eta errebelta segida ekarri zuen: garai horretan 300.000 pertsona inguru erail eta desagertu ziren, alderdi Liberal eta Kontserbadoreek piztutako nekazari minifundistaren aurkako gerra zibilean.

Bigarren biolentzia garaia gaur egun arte luzatzen da. 1960eko hamarkadaren erdialdera Kolonbiaren historiako talde gerrillero nagusiak sortu ziren: 1964an, Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak (FARC) eta, hilabete baztuk beranduago, 1965ean, Nazio Askapenerako Armada (ELN). Gainera, Askapenerako Herri Armada (EPL), Quintín Lame organizazio indigena eta apirilaren 19ko



Mugimendua (M-19). Bestalde, Estatuaren erantzuna *escuadrones de la muerte* deitutakoak sortzea izan zen, edozein asaldura desagertu arazteko helburuarekin. Biolentzia 1980eko hamarkadako bigarren erdialdean gogortu egin zen, Unión Patrióticaren sarraskia gertatu zenean —1985ean sortutako ezkerreko alderdia, Gobernu eta FARCEko gerrillen bake akordioen ondorioz sortu zena— 1986an Kongresuan 14 aulki lortu ostean, desegin zuten: alderdiko 3.000 paratide baino gehiago erail zituzten, hauen artean presidentzia, alkatetza, nekazaritza, aktibista eta zinegotzi hautagaiak. 1990eko hamarkadan, hainbat gerrilla organizazioei armak kendu zizkieten, baina bake prozesuek ez zuten aurrera egin, ez ELNarekin ezta FARCEkin ere, horregatik talde hauek aktibo jarraitzen dute gaur egun arte. Desmobilizazio garrantzitsuena M-19 talde gerrillariena izan zen, prozesu eratzaille bati bidea eman ziona; 1991an, Konstituzio berri baten hainbat giza eskubide eta eskubide politiko emanez.

Baina gatazka soziala eta armatua bideratu zituzten egitura arrazoiak hor jarraitzen dute, honek ez du Álvaro Uriberen lehenengo gobernuan beste desmobilizazio prozesu batzuk gertatzea ekiditu. Hau talde paramilitarren kasua da, 2005ean bere ustezko desarmatzearekin bukatu zuten. Desmobilizazio honek, *Ley de Justicia y Paz* delako kontestuan kokatuta, talde hauen boterea bere horretan mantentzen du eta era berean berain jabetzak, nekazariari legez kontra kendutakoak, edo droga trafikotik zetozen errekurtsoen laguntzaz lortutakoak mantentzen dituzte. Prozesu hau giza eskubideen organizazioek kritikatzeko egiten egia eta justiziaren billaketa, eta biktimen kasuen konponketekin.

02.2 Estatu terrorismoa

Gaur egun, Sudanen ostean, Kolonbia da planetako bigarren lurraldea egokitzen ez den bertako biztanleria kopuru handienarekin. Azkenengo hogeitaz urteetan, hiru milioi eta erdi kolonbiarrek beraien jatorria utzi behar izan dute²⁹. Urtez urte ematen den herrialdeko giza eskubideen bortxaketen kopurua beldurgarria da: 2004an, 4.000 pertsona biolentzia politikoak hil zituen eta 182 desagertu ziren; berriz, 2005eko lehenengo hiru hilekoan bakarrik 62.000 pertsonak derrigorrez desplazatu beharra izan zuten, eguneko hamaika erailketa egon ziren batz bestea eta 2.100 pertsonak, bizitzaren aurkako mehatxuengatik, alde egin behar izan zuten.

Joan den mendeko azkenengo lau hamarkadetan, giza eskubideen aldeko organizazio nazional eta internazionalak mindutako humanitateen 40.000 krimen kasu baino gehiago erregistratu zituzten: sarraskiak, torturak, desagertzeak, atxiloketa arbitrarioak eta exekuzio estrajudizialak³⁰. Botereak, giza eskubideen defendatzaileak; beraien bizi baldintzak hobetzearen alde lan egiten duten pertsonak, sindikalistak, militanteak eta gizarte taldeen buruak, irakasleak, nekazariak, ikasleak...

²⁹ 1985-2006 arteko epean emandako barne desplazamendu kopurua 3.832.527 pertsonakoa da: Codhes, Codhes Informa, nº 69-en azaltzen den bezala, Bogotá, 2006

³⁰ *Colombia Nunca Más* Base proiektuaren datu-basea.



denak arriskutsutzat jo ditu. Aída Abellak azaltzen duen bezala, Unión Patrióticako lehendakari ohiak, «demokrazia baten erdian, diktadura batean baino gauza okerragoak egin ahal izan zituzten»³¹.

Desplazamendu gehien ematen diren inguruneak atzerriko inbertsioarentzat inguru estrategiko erakargarrienak dituzten guneak dira³²: Putumayon eta Caquetán, petrolio daukatelako; Chocó, planetako biodibertsitate maila handiena duen lurraldea delako, bertan palmondo afrikarra landatzeko oihana txikitzen ari dira honen olio erregai bezala erabiltzeko helburuarekin; Cali, uragatik; Arauca eta Casanare, petrolio erreseseba handidun lurraldeak dira; Bolívar-ko hegoaldea, urre meategiak dituzte; La Guajira, herrialdeko ikatz meategi handienak dituen inguru da. Inguru guzti hauek balore handiko aberastasun natural handiak dituzte merkatu mundialarentzat, beraz ez da harritzekoa hauek erabat militarizatuak egotea eta lehen aipatutako giza eskubideen aurkako bortxaketa larrienak bertan gertatzea.

Bestalde, legez kanpoko talde armatu militarrek indartu dira, beraien lurren inguruko liskarrak, biolentzia politiko kopuruak nabarmen gora egin dute (ehun mila biztanleko 56 erailketa), derrigorrezko desplazamenduak, zigorgabetasun mailak eta kanpora emigrazioak³³. Talde paramilitarrek —azken hamar urteetan, giza eskubideen bortxaketen %65aren arduradunak direnak— Estatuaren laguntza eta konplizitateaz gozaten dute. Gaur egun, paramilitarismoaren egiturak beraien gizarte eta politika organizazioen legitimatze fasean daude desmobilizazio prozesu marko baten barnean, zeinetan lurralde eta herri mailako Estatu estamentu askoren kontrola mantentzen duten beraien aktibitate ekonomiko guztiak bezala, herrialde osoaren bi herena hartzen duen inguruan³⁴.

Parapolitika fenomenoak 2006ko bukaeran komunikabide nazional eta internazionalen lehen orrialdeetara egin du salto. Rodrigo Tovar Puporen ordenagailua konfiskatu zenean —alias Jorge 40—, Kolonbiako Autodefensa Batuen Ipar Bloke (AUC)-ko buruetako batena, talde paramilitarren, Segurtasunerako Departamentu Administratiboaren (DAS) eta polizia eta ejerzitoko kide batzuen arteko harremana frogatu da, beraien insurgentziarekin zerikusia zutela uste zutenen bizitzarekin bukatzeko³⁵. Ordenagailu horretan 2005etik Kosta Atlantikoan egindako 500 erailketa baino gehiagori buruzko informazioa biltzen da, horietatik gehienak zigorrik gabe gelditu ziren³⁶. Oraingoz, *parapolitika* eskandaluan Uriberen administrazioko goi karguak inplikatu daude, María Consuelo Araujo atzerri-ministroa— bere aita eta anaia kartzelaratu ostean dimititu behar izan zuena—, eta Kosta Atlantikoko beste zortzi biltzarkide eta gobernadore³⁷.

³¹ Vladimir Carrillo eta Tom Kucharz, *Colombia: Terrorismo de Estado*, Bartzelona, Icaria - Bakea eta Duintasuna, 2007.

³² Luis Alfredo Burbano, "Las multinacionales españolas en Colombia". *Boletín OMAL*, nº 15, 2005eko abenduan.

³³ Álvaro Uriberen gobernu garaian herrialdeetik 760.000 pertsona atara ziren ["Aumenta éxodo de colombianos". *El Tiempo*, 2006ko urriaren 3a].

³⁴ "El cobro de un impuesto del 10% a todas las actividades económicas en las regiones que controlan" [*Semana*, 2006ko otsailaren 9a; *El Tiempo*, 2004ko irailaren 29a].

³⁵ "La fuerza para-pública". *Semana*, 2006ko azaroaren 18a.

³⁶ "El computador de 'Jorge 40' puede ser el inicio de un nuevo proceso 8.000". *Semana*, 2006ko urriaren 10a.

³⁷ "Los cinco congresistas capturados por sus nexos con los 'paras' son trasladados a la cárcel". *Semana*, 2007ko otsailaren 15a.

02.3 Errezeta neoliberalak

1980eko hamarkadaren erdialdera, Kolonbiako ekonomiaren hainbat egitura erreforma abian jartzen hasi ziren, eredu neoliberalaren barruan. 1990 eta 1994 urteen artean, César Gaviriaren aginte garaian eta *Ongi etorri etorkizunera* lelopean, Estatu erreforma handiak sartu ziren, batez ere muga zerga eta zerga sistemetan. Horrela, adibidez, 1989an muga zergaren batezbestekoa %44koa zen bitartean, 2000an %12koa zen. Lehenengo erreforma epe horretan elektrizitate, banka, ur eta osasun sektoreetako estatu aktibo asko pribatizatu ziren.

Errezeta neoliberalen ezarpenak Kolonbia globalizazioan sartzea zuen helburu. Zentzu honetan, Kolonbiako ekonomia internazionalizatzea nahi zen, herrialdeak merkatu globalean lan berri bat betetzea lortzeko; honek zera suposatzen zuen ekonomia autohornitzailea izatetik maila internazionallean lehen gaien eta zerbitzuen hornitzaile izatera pasatzea, beste ekonomia lehiakorrago batzuen ondasun gehienak inportatuz. Prozesu honen emaitzak desindustrializazioa eta Kolonbiako produkzio aparatuen krisia izan ziren, ia milioi eta erdi pertsona lanik gabe utzi zituen³⁸, landutako lur sailen azalera 700.000 hektarea gutxiagotu ziren bitartean eta urtean 8.000 milioi tona elikagai esportatzen hasi ziren.

Esportaziorako ohiko produkzioarekin jarraitzeaz gainera— Kolonbiak planetako hiru herrialde esportatzaile naguisenen artean jarraitzen du—, ekonomiaren bilakaera handi honek lehen gaien herri produkzioa bultzatzeari ekin dio internazionalki lehiakorrak izan daitezen: frutak, barazkiak, palma olio, kakaoa eta kautxua, nekazaritza sektorearen kasuan; petrolio eta ikatza, energiaren sektorekoak; egurra eta herrialdean oraindik dauden oihanetan hartutako fauna eta florako espezie exotikoez gain³⁹. Kanpo merkaturantz ekonomiaren berrorientatzeak, 1990 eta 2004 urteen artean, esportazio tradizionala %82an eta ez tradizionala %284an gora egitea lortu du. Azken hauen artean loreen industria nabarmendu behar da, Kolonbia munduko bigarren esportatzaile nagusia da, Holandaren atzetik.

Hala ere, Kolonbiako gobernuaren *esfortzuez* gain eta, bereziki, Estatu Batuetako ejertzitoarenak, Kolonbiako esportazio prozesu nekazal industrial arrakastatsuen kokaina esportazioak izaten darrai: 2005ean, negozio honek 3.000 milioi dolarreko diru sarrerak mugitu zituen urteko, hau da, petrolioaren esportazioetatik jasotako dibisen tamaina berbera izan zuen⁴⁰. Merkatu librearen logikarekin sintonian, narkotrafikoa azkenengo hogeitun urteetan etengabe zabaldu da, sarean funtzionatzen duen egitura horizontala izatera helduz, biziki dinamikoa, moldagarria eta eraginkorra, Europa eta Estatu Batuetako droga horniketa etengabe mantentzea lortzera eta Hego Konoan eta Ekialdeko Europar merkatu berriak zabaltzera helduz.

Produkzio sistemaren galerekin batera, banka eta finantza sektoreetan mozkin handiak lortzen hasi ziren. 1992 eta 2002 urteen arteko hamarkadan, 1.500 milioi dollarrak gailentzen zituen irabaziak izan zituen sektore honek⁴¹. Finantza korporazioen boterearean finkatzean zerikusi handia

³⁸ Estatistika Departamentu Nazionalaren arabera (DANE), biztanleriaren ekonomikoki (16,5 milioi pertsona) aktiboa den %43,4a langabezia edo azpikontratatura dago Kolonbian. 1992an, langabezia tasa %8,7koa izan zen, 2002an %16koa izatera pasatuz.

³⁹ Planeazio Zuzendaritza Nazionala, *Plan Nacional de Desarrollo 2002-2006*, Bogotá, 2002.

⁴⁰ Amylkar D. Acosta, "Los dineros calientes". 2006ko otsailaren 6a.

izan zuten transakzio bankarioek egindako kobrantza generalizatuek, zein estatuaren diru laguntzek—ideologia neoliberalen arauak ziotenaren aurka— finantza korporazioen galeren edo beraien direktibek eragindako kiebren kasuan.

Guzti honen ondorio bezala, bosturteko baten baino denbora gutxiagoan lan, txirotasun eta diru sarreren banaketan adierazleak larriagotu egin ziren, talde armatu irregularrak indartzeko eta Kolonbiako gatazka armatua sendotzeko giro aproposa sortuz.

02.4 Atzerriko inbertsioak Kolonbian

XX.mendearen erdialdera, Andeetako herrialdeak kanpoko kapitalaren aurrean jarrera irekia azaltzen zuten eta hauetako askok ez zuten gaiaren inguruko legedi espezifikorik. Erauzketa enpresen—hidrokarburoenak batez ere— eta zerbitzu publikoen nazionalizazioarekin, kanpoko kapitalari Kolonbiako inbertsio areak murriztu zitzaizkion eta berdin aldameneko herrialdeetan⁴². ZIARI eman behar zitzaion tratamendua 1987 urtera arte ez zen aldatu, zeinetan Andeetako ituneko herrialde bakoitzari, kanpoko inbertsioari zegokionez, legeak era indibidualean egitea utzi zitzaion. Lau urte beranduago, probatu berri zuten konstituzio kolonbiarrak kapitalen zirkulaziorako bidea libre utzi zuen, bertako inbertsio eta kanpoko inbertsioen arteko bereizketak ezabatu zituelako eta atzerriko inbertsioari jartzen zitzaizkion trabak kentzeko aldaketa garrantzitsuak egin zirelako.

Herrialdearen *modernizazioak* kapital transnazionalen heltzea bultzatzeko balio izan zuen, eta bi prozesu osagarriren bidez gertatu zen: enpresa publikoen privatizazioa eta legedi aldaketak. Egitura erreforme fase honetan Estatuko aktiboen salmentaz gain, liberalizazioa, desregularizazioa eta irekiera komertziala biltzen ziren. Ondoren, Álvaro Uriberen (2002-2006) lehen gobernu aldiarekin, dinamika hau areagotu egingo zen bigarren neurri zerrenda batekin: lan erreforma, zerga eraldaketa eta gizarte segurantzaren erreforma. Kredo neoliberalaren fedea ematen du Munduko Bankuak berak, honek esan baitzuen 2005ean Kolonbia zela munduko bigarren herrialdea arrakasta gehien izan zuena inbertsioen atrakzioak hobetzeko erreformak ezartzen⁴³. Izan ere, inbertsio mundialak ikertzen dituen Nazio Batuen txostenaren arabera, Kolonbia da ZIarentzat Latinoamerikako bostgarren ekonomia mesedegarriena, atzetik Brasil, Mexiko, Argentina eta Txile⁴⁴.

Joan zen mendeko bigarren erdialdean bermatzen joan ziren talde ekonomikoak internalizazio prozesu bati ekin zioten, fusio, salmenta eta korporazio global handietarako artikulazioen bitartez. Narkotrafikoaren kartelak ez dira herrialdean presentzia izan zuten organizazio ekonomiko

⁴¹ Finantza Erakundearen Elkarte Nazionala, *Fusiones y adquisiciones del sector financiero colombiano*, 2006.

⁴² CEPAL, *La inversión extranjera en América Latina y el Caribe*, 2002, Santiago de Chile, Nazio Batuek, 2003.


⁴³ Munduko Bankua, *Doing business in 2005: Removing obstacles to growth*, Washington D.C., 2005.

⁴⁴ UNCTAD, *Informe sobre las inversiones en el mundo 2005*, New York eta Geneva, Nazio Batuek, 2005.

internazional bakarrak: enpresa transnazionalak —batez ere britaniar, estatubatuar eta espainiarrak— indartsu agertu ziren hidrokarburoen erauzketa aktibitateetan eta zerbitzuen sektoreetan (finantzak, osasuna, telekomunikazioak, komunikabideak, eraikuntza, turismoa eta aseguruak). Gainera, atzerriko inbertsio guztiak, estatu konpainiak erosten oinarritzen zirenak, Kolonbiako biztanleriaren bizi kalitatea hobetzeko itzaropena ez zuten bete, ez zutelako lanpostu berriak sortu ezta produkzio gaitasunaren igoerarik ere.

Kolonbian inbertsio atzeritarraren inbertsioen gorenara 1997 urtean gertatu zen, Bogotako Elektrizitate Enpresa (EEB) pribatizatu zenean, 2.170 milioi dolarretan saldu zen. Inbertsioen sarreren gehiengo hori eta gero, hurrengo urteetan ZIAk behera egin zuen eta egonkor mantendu zen urteko 2.000 milioi dolarrekin. Izan ere, lurralde latinoamerikarreko beste lurraldeak Argentinako 2001eko krisiak berarekin eraman zituenen—herrialde gehienek kapitalen sarrera fluxuetan eragina izan zuen—Kolonbiak atzerriko inbertsioaren maila berdina mantendu zituen⁴⁵.

2 GRAFIKA ZIA SARRERA FLUXUAK GUZTIRA KOLONBIAN



Iturriak: Errepublikako Bankua eta Kolonbiako Industria eta Komertzio Ministeritza, 2006.

Lurraldeka, 1994 eta 2003 urteen artean Altiplano eta Santanderes(73,5%) inguruetakoko inbertsioak—multinazional gehienek hiri burua aukeratzen dutelako beraien ekintzen oinarri—, Kosta Atlantikoak eta Bareak (10,5%), Cauca Haranak (10,0%) eta Ardatz Kafetero (6,1%)-ak jarraitzen die⁴⁶.

Azken bi urteetan, inbertsioek gora egin dute eta 90eko hamarkadaren bigarren erdialdean eman zirenen parekoak dira, herrialdearen irekiera eta liberalizazio ekonomikoarekin bat eginez. Horrela, 2005ean Kolonbiak inbertsioen hazkunde recorda izan zuen: %227ko igoerarekin, ZIA gehien

⁴⁵ ZIAren fluxuak Andeatako Komunitatean mantendu egin ziren urte horietan, 1999 eta 2002 urteen artean urteko 8.000 milioi dolar batezbesteko kopuruarekin.

⁴⁶ Zenbaki hauek petrolio kontutan hartu gabe, inbertsioekin du zerikusia. [Errepublikako Bankua, 2006]




igo zen herrialdea izatera iritsiz Hego Amerikan, atzetik Venezuela (95%) eta Uruguay (81%)⁴⁷, eta bere historiako atzerriko inbertsio balio altuena lortu zuen, 10.192 milioi dolarrekin. Bultzada honen arduradunak industrial sektoreko erosketa handiak izan dira, SABMiller garagardogile multinazionala Bavaria enpresaz jabetzarekin eta Tabako Konpainia Kolonbiarrak Phillip Morrisi transnazionalari saldutako akzioekin. Baina herriadeak ez zituen ZIA fluxu handiak bakarrik erakarri, lurraldeko inbertsore handienetakoa bilakatu zen Mexiko, Brasil eta Txilerekin batera.

02.5 Petroliotik zerbitzuetara

80ko hamarkadan, Kolonbian egiten ziren atzerriko inbertsio gehienak errekurtsu naturalen sektorean oinarritzen ziren: orduan, ZIAren %63a meatzaritza eta petrolioan. Herrialdean atzerriko inbertsioak gorenengo aldia bizi izan zuenean aldiz, egoerak buelta eman zuelako, 1996 eta 2003 urteen arteko epean, zerbitzuak izan ziren ZIAko fluxuaren norakoaren %70a Kolonbian. Inbertsioen patroia aldaketaren froga bezala, urte horietan atzerriko kapitalen %5a bakarrik inbertitu zela baliabide naturaletan⁴⁸ ikusi daiteke.

3 GRAFIKA IED-AREN SARRERAK KOLONBIAN SEKTOREKA [1994-2004]



Iturria: Errepublikako Bankua, 2006.

⁴⁷ UNCTAD, *Informe sobre las inversiones en el mundo 2005*, New York eta Geneva, Nazio Batuak, 2006.

⁴⁸ CEPAL, *La inversión extranjera en América Latina y el Caribe, 2004*, Santiago de Chile, Nazio Batuak, 2005.

Zerbitzuen enpresa publikoen pribatizazioak beharrezkoak izan ziren joera aldaketa honi laguntzeko, atzerriko inbertsioaren guztizko sarreratik %57,2a 1997an estatu aktiboen salmentari esker izan zelako. Gainera, zerbitzu tipo desberdinen arteko bereizketa egin daiteke: 1994tik 2004 arte, finantza zerbitzuak atzerriko zerbitzuen %23a eta ur, gas eta elektrizitate zerbitzuek %16a. Hori bai, egia esan, Kolonbia preferentzia globalaren kasu partikular bat baino ez da, ZIAREN korrante mundialek zerbitzuen aldeko aldaketa egin baitute. Horregatik, 70eko hamarkada hasieran atzerriko inbertsioen laurden bat sektore honek jasotzen zuen bitartean, 1990ean ia erdia suposatzen zuen eta 2002 urterako bere partaidetzak %60an gora egin zuen.

Gaur egun, berriro ere jarrera hau buletan dator, eta nabarmendu behar da baliabide energetikoen sektoreko kapitalen sarreren gorakada azken bi urteetan: 2005eko lehenengo seihilekoan, petrolioarekin zerikusia zuten inbertsioak %134 igo ziren—guztira 1.200 milioi dolarrekin—, meatzaritza industriaren igoera %60koa izan zen bitartean eta 2.000 miloitar heldu ziren. Kolonbian gordin erreserben agortzeak eta ondorengo petrolio esplorazioekin zerikusia izan zuen aktibitateen bultzadak 2005ean herrialdeari gora egiten lagundu zion ZIAREN diru sarrereren %67a errekurso naturalen sektorerantz zuzentzeak⁴⁹.

02.6

Espainia, Kolonbiako bigarren inbertsore nagusia

Korrespondentzi harremana dago herrialde inbertsore eta herrialdean hauek beraien inbertsioak zentratu zituzten sektoreen artean. 90eko hamarkadan egitura erreformak garatzen hasi ziren arte, Kolonbian egiten ziren inbertsioak Estatu Batuetatik zetozen batez ere eta petrolio eta manufaktura industrian oinarritzen ziren nagusiki. Ekonomiaren irekiera eta liberalizaioarekin aldiz, egoera aldatu egin zen eta Europako inbertsioek garrantzi handia izan zuten. Honela, 1990eko hamarkadaren lehen erdian Europako ZIAK Kolonbiarentzat %22,9a suposatzen zuen bitartean, 2001 eta 2004 urteen artean %47,1ekoa izatera pasatu zen⁵⁰. Azkeneko hamarkadan Kolonbian inbertitu duten herrialde nagusien zerrenda begiratzen bada (ikusi 3 taula), Estatu Batuek lehen postua izaten jarraitzen dutela ikusi daiteke—epe horretan erregistratutako ZIAREN %16arekin— nahiz eta bere inbertsioak proportzionalki jeisten joan diren Europako Batsunetik zetoezenak gora egiten zuten artean.

Espainia Kolonbiako bigarren inbertsore nagusia izan da eta Europako inbertsore nagusia, Holanda eta Erresuma Batuek jarraitzen diote atzetik, herrialde hauen enpresek paper esanguratsua izan baitzuten estatu aktiboak esku pribatuarentzako transferentzian, batez ere energia elektriko, banka eta telefoniaren sektoreetan. Eta nabarmena den beste gauza bat paradisu fiskal desberdinetatik jasotako kapitalen proportzio handia da, Kaiman Uharteak, Irla Birjiñak eta Bermudetatik datozenak adibidez.

⁴⁹ CEPAL, 2006, *op. cit.*

⁵⁰ UNCTAD, *Investment Policy Review*, Geneva, Nazio Batuak, 2006.

3 TAULA INBERTSORE NAGUSIAK KOLONBIAN [1994-2004]

HERRIALDEA	ZIA OSOAREN PARTEHARTZEA
ESTATU BATUAK	16%
ESPAINIA	14%
PANAMA	13%
KAIMAN UHARTEAK	11%
IRLA BIRJIÑAK	10%
BERMUDAK	7%
HOLANDA	5%
CANADÁ	4%
ERRESUMA BATUA	3%
BESTE BATZUK	17%

Iturria: Errepublikako Bankua, 2006.

2005ean, erregistroak daudeneko azkeneko urtean, egoera hau apur bat aldatu da, egoitza Londonen duen SABMiller-en, Kolonbiako Bavaria garagardoetgiaren jabetzearekin —Hegoamerikako bigarrena— Erresuma Batua herrialdeko bigarren inbertsore izatera iritsi da, Espiniaren aurretik jarritz.

02.7 Kolonbian inbertitzeko arrazoiak

Konpainia transnazional handiak eta finantza organismo internazionalak argi daukate: Gaur egun Kolonia kontutan hartu behar den balore bat da inbertsioak egiteko orduan. Atzerriko analisten arabera, pisuzko arrazoiak daude herrialdearen oparotasunean sinesteko. Egonkortasun makroekonomikoa da hauetako bat, izan ere Kolonbiak lurraldeko batezbesko altuena izan du hazkunde ekonomikoari dagokionez (%5,1a 2005ean). Gainera, Latinoamerikako lan erregimen flexibleena izateak⁵¹, hala nola beste herrialde latinoamerikarrak krisiari aurre egiten ari ziren artean kanpo zorra ordaindu izanak, atzerriko inbertsioarentzat herrialde fidagarri bihurtzen du. Azkenik, inbertsioek promoziorako dokumentu ofizialetan sarri erabiltzen den beste argumentuetako bat herriladearen kokapen estrategikoa da—merkatu iparramerikar, asiatar, latinoamerikar eta europarrerako


⁵¹ Kolonbian, egunez lanorduak goizeko 6etatik gaueko 10ak artekoak dira; honek kontratatzaileari bi turno kontratatze aukera ematen dio ordu extrak zein gaueko errekaragatik pagatzeko beharrik izan gabe.

itsas sarrera erraza duela—, merkataritza libre itunak Nazioen Andeatako Komunitatearekin, Mexikorekin, Mercosur-ekin, Txile –rekin eta Estatu Batuekin sinatu izanak, eta AEBrekin zein Europako Batasunarekin muga zerga lehentasuna izateak.

ZIAREN erregularizazioari dagokionez, Kolonbiak atzerriko inbertsioarentzat nahiko legedi lagungarria duela esan daiteke, eta alde guztietatik begiratuta inbertsio nazionala tratatzen den modu berean tratatzen dela atzerrikoa ere. Gainera, esportazioak errazteko zerga gabeko hamar alderdi martxan jarri ziren⁵²— zerga irabaziak eskainiz eta inportazio eta esportazio zergak ordaintzeko beharrik gabe⁵³—, esportaziorako bost inguru ekonomiko berezi —kanbio pizgarriekin, fiskalak, aduanakoak eta lanari dagozkionak— Vallejo Plana, multinazionalen zerga salbuespenak eta produktuen eta lehen gaien komertzializaziorako bermea eskainiz.

Azken finean, herrialdearen irekiera adierazlea, merkatu globalean integrazio gradua neurtzen duena, 1992an BPGd %34a izatetik 2002an %41a izatera pasatu zen⁵⁴ eta, propaganda ofiziala izan arren, kapital transnazionalen jasotze ugariak ez du berarekin ekarri hitz emandako aurrerabide eta ongizatea. Izan ere, ZIA fluxuaren hazkundera langabezi tasa eta txirotasun mailarekin alderatzean, atzerriko inbertsioekin lotuta dauden ustezko gizarte onurak ez direla inondik ere ageri ikusi daiteke. Horrela, langabezia tasak gora egin du — multinazionalen enpresa publikoen erosten osteko berregituratze politikoek langileak era masiboan kaleratu arazi zituzten—, txirotasun adierazlea diru sarrerako ere igotzen joan da eta Kolonbia bere biztanleriaren artean desberdintasun handienak dauden munduko herrialdea, diru sarrera kontzentrazio adierazleenigoerarekin nabarmen gelditzen den bezala (ikus 5 grafika). Horrela bada, enpresa transnazionalen mugitzen dituzten kapitalen fluxuek ez dutela gatazka gainditzeko balio izan, bai ordea gehiago larritzeko.

4 GRAFIKA TXIROTASUNA ETA DIRU SARRERAREN KONTZENTRAZIOAREN GARAPENA KOLONBIAN



*Diru sarreraren kontzentrazio adierazleak (Gini) herrialde zehatz baten biztanleriaren diru sarreraren banaketa argitzeko balio du. Giniak 0 (banaketa bidezkoena) eta 1 (izugarriko desberdintasuna) arteko baloreak ditu.

Iturria: Libardo Sarmiento Anzola, "Entre la persistente injusticia y la felicidad de los colombianos", *Desde Abajo*, 2005eko abuztua.

02.8

Segurtasunaren ikuspegi irreala

Baina dudarik gabe, Kolonbiako Gobernuak gehien errepikatutako argumentua inbertsioak bultzatzeko herrialdearen segurtasuna hobetzea da. Ideia hau planeta guztian zehar zabaldu da, beste batzuen artean finantza organismoek zabaldu duten propagandari esker, Kolonbiak lurraldeko lehenengo postua betetzen duela diote beraien gobernu politikako oinarritzko baldintza eta gardentasun baldintzak direla eta⁵⁵. Gainera, Kanpo-merkataritzaren Espainiako Institutuaren arabera (ICEX), «Kolonbiak hobekuntza nabarmena jasan du segurtasunaren inguruko datuetan, Álvaro Uribe duela gutxi berriro hautatuak bultzatutako *Segurtasun Demokratikoa* delako politikaren emaitza»⁵⁶.

Errepublikako presidentek, hauteskunde legea berri ostean 2006an berriro hautatu zuten bigarren agintaldi baterako, bere emaitzarik hoberenak iritzi publikoari eskaintzen dizkio: erreforma inposatzaileak eta lan-legedia, gastu publikoa gutxitzea eta pentsio sistemaren erreforma. Gainera, bertsio ofizialaren arabera herrialdearen BPGdak % 1,5 eta %4,5 gatazka armatuaren erruz galtzen denez⁵⁷, gastu militarra gehitzea komeni da. Epe ertainera, atzerriko inbertsoreen aurrean herrialdearen aurpegia garbitzeko helburuarekin. Eta ildo honetan sakontzeko, Kolonbiako gobernuaren aurre ikuspena etorkizunerako, *Visión Colombia 2019*an biltzen direnak, beste neurri batzuen artean karga garraioetarako azpiegitura handien sortzea, Atlantiko eta Pazifikoko tren sareen errekonstruzioa, eta dragatzea eta bost portu prestatzea suposatzen dute. Santiago Montenegrok dioen bezala, Nazio-plangintza Departamentuko Zuzendariak, «*Visión Colombia 2019*-ek lehenengo bat ezartzen du: Kolonbiako ekonomia esportazio, inportazio eta inbertzioetan gehitze nabarmena lortzeko gauza izango litzatekeen ekonomia ireki bilakatzea»⁵⁸.

Laburbilduz, Kolonbiako gobernuak herrialdearen irudi internazional bat proiektatzen saiatzen ari da atzerriko kapitalak jasotzeko. Zentzu honetan, ez da harrizkoa Ogasun eta Kreditu Publikoko Ministroak, Alberto Carrasquillak, «gure politika ekonomikoarenganako konfidantzak aparteko emaitzak lortu ditu, jada ezarritako konpainia multinazionalak berriro inbertitzen ari dira eta beste berri batzuk inbertitzen hasi dira botere izugarri honi onura ateratzeko»⁵⁹. Inbertsioetako segurtasuna ez dago pertsonen segurtasunarekin erlazionatuta, Espainian argitaratzen diren txostenetan ikusi daitekeen bezala: 2006an Kolonbia izan zen Latinoamerikako herrialdeetatik Espainiako enpresentzat negozio aukera hobeak izan zituen⁶⁰. Herrialde fidagarri baten irudia sortzea da helburua, neurri handi baten dagoeneko lortu dutena: ZIA 1995ean mila milioi dolarretara justu heltzen zen bitartean, hamar urte beranduago 10.000 milioiak gailentzen zituen. Gobernuak maila makroeko-

⁵² Gaur egun, Kolonbian dauden zerga gabeko inguruak hurrengo hamarrak dira: Bogotá, Barranquilla, Pacífico, Quindío, Cúcuta, La Candelaria, Palmaseca, Rionegro, Santa Marta eta Cartagena.

⁵³ Hauek Buenaventura, Valledupar, Ipiales, Tumaco eta Cúcuta dira.

⁵⁴ Munduko Bankua, *Munduko Garapenaren Adierazleak*, 2006.

⁵⁵ World Competitiveness Center, *World Competitiveness Yearbook*, 2006.

⁵⁶ Kanpo-merkataritzaren Espainiako Institutua (ICEX), «¿Por qué Colombia?», 2006.

⁵⁷ Lucy Amis, Adrian Hodges eta Neil Jeffery, *Desarrollo, paz y derechos humanos: una agenda para las empresas*, London eta Bogotá, International Business Leaders Forum (IBLF), 2006.

⁵⁸ Nazio-plangintza Departamentua, *Visión Colombia II Centenario: 2019*, Bogotá, 2006.

⁵⁹ Proexport, *Colombia sorprendente, el lugar para ir, Guía de Inversión extranjera*, 2006.

⁶⁰ Merkataritza ganbera, *Perspectivas empresariales para 2006*, 2006.

nomiko batzuek superatzeaz, iritzi publiko internazionalaren aurrean duen kudeaketaren fidagarritasunaz eta delikuentziari aurre egiteko estrategiaz harro agertzen den aldi berean, Munduko Bankuak, Garapenerako Banku Interamerikarrak, Andeetako Bultzada Korporazioak eta Nazioarteko Moneta funtsak erreforma abalatu dute eta 2003-2006 urteen arteko epean Kolonbiari 10.300 milioi dolarreko kreditua eman behar zietela baieztatu dute⁶¹.

Bestalde, hauetako txosten bakar batean ere ez da giza eskubideen bortxaketa mailen erreferentziarik egiten, Álvaro Uriberen agintaldian eskandaluzko kopuruak emanaz. Horrela, bere lehen agintaldian, 2002ko uztaila eta 2006ko ekaina bitartean, guztira 11.282 pertsona erail zituzten edo desagertu ziren Kolonbian arrazoi soziopolitikoengatik, eguneko 7,8 pertsona, aurreko sei urteetako batezbestekoa berriz eguneko 9 pertsonako zen. Gertaera hauen ustezko egileak ezagutzen diren kasuetan, Estatuak eriotzen eta desagerteten %75,2aren ardura du, estatu agenteen zeharkako ekintzak direla eta (%14,2, 908 biktima)⁶², edo talde paramilitarren tolerantzia edo laguntasuna bide (%61, 3.907 biktima). Gainera, hautazko atxiloketak praktika orokortu, masibo eta sistematiko bilakatu dira: aurreko sei urteetan gertatutakoarekin alderatuz geroen, Uriberen administrazio garaian hautazko atxiloketek %240,9an egin zuten gora⁶³.

Datu hauek propaganda ofiziala ezeztatzen dute eta Kolonbiak munduko herrialde arriskutsuenetakoa izaten jarraitzen duela egiaztatzen dute, bereziki gizarte eredu alternatibo bat defendatzen dutenentzat.

02.9 Multinazionalak Kolonbian

Multinazionalen presentzia Kolonbian ez da azken urteotako fenomeno bereizi bat, aurreko mendearen hasieratik, herrialdean sistema kapitalista garatzen ari baitzen, gobernu desberdinak atzerriko enpresen atzetik ibili izan dira beti. 20eko hamarkadan adibidez, Magdalena Ertaineko petrolio enklabea garatu zen Tropical Oil Company kapital iparramerikarraren laguntzaz eta United Fruit Companyren bidez nekazal industri garapenerako hainbat proiektu martxan jartzeari ekin zioten. Zentzu honetan, Kolonia munduko ekonomian sartzeko lehenengo epe horretan ekonomia enklabeak garatu ziren, lan indarraren gainesplotazio dinamikak ezarri ziren eta langileen erresistentzia prozesuei ere bidea ireki zitzairen, izan ere Kolonbiako langileriaren sorrera, Magdalena eta Magdalena Ertaineko Iparramerikako korporazio transnazionalen garapenarekin lotuta dago⁶⁴.

Halaz guztiz, 80eko hamarkada eta gero izan zen herrialdean enpresa multinazionalen presentzia orokortu zeneko garaia. Irekiera ekonomiko ereduaren itzalpean, estatu enpresen pribatizazioarekin eta fusio estrategiekin, eta konpetentzia internazional gogorrari aurre egiteko Kolonbiako konpainien salmentarekin, Espainiako, Kanadako (Cerrromatoso adibidez), Mexikoko (Cemex), Brasilgo (Petrobras)

⁶¹ Proexport, 2006, *op.cit.*

⁶² Kolonbiako komisió jurista, *Colombia 2002-2006: Situación de derechos humanos y derecho humanitario*, Bogotá, 2007.

⁶³ Giza eskubideen eta eskubide humanitarioen Behatokia, "Persiste grave situación de derechos humanos y derecho internacional humanitario en Colombia". Bogotá, 2006.

⁶⁴ L. Alfredo Burbano, 2005, *op. cit.*

eta Frantziako (Carrefour), transnazionalak ezarri ziren (aurrerago zehaztuko den bezala), batzuk aipatzearen eta Ipar Amerikakoak aipatu gabe, hauek izan ziren lehenengoak herrialdera heltzen. Horrela gaur egungo egoerara heldu arte, non herrialdeko 5.000 enpresa nagusiak, 291 multinazionalak diren eta BPGdren % 22a biltzen duten⁶⁵.

Negozio enpresak Kolonbian zabaltzen dira: 2005ean, mila konpainia nagusien salmentak %16an egin zuen gora eta 217 bilioi peso bildu zituen (80.000 milioi euro gutxi gorabehera), BPGdren %76ari dagokiona, hau da, herrialdeko produkzio osoaren hiru laurdenak. Enpresa transnazionalen proportzioa Kolonbiako nagusien artean urteen poderioz goraka doa, estatuaren parte hartzea gero eta txikiagoa den bitartean: duela 7 urte, 100 enpresa handienetatik

4 TAULA KOLONBIAKO ENPRESA MULTINAZIONAL NAGUSIAK [2005]

POSTUA	ENPRESA	DIRU-SARRERAK ^A	IRABAZIAK ^A
1	Bavaria	5.751.406	1.609.695
2	Exxon Mobil	4.327.518	42.528
3	Comcel	3.277.813	219.099
4	GM Colmotores	2.281.863	218.778
5	BP Colombia	2.258.846	1.141.084
6	Chevron Texaco	2.216.198	154.365
7	Drummond	2.168.463	209.015
8	Avianca	2.077.891	58.798
9	Codensa	1.781.330	422.158
12	Telefónica	1.712.384	3.799
18	Emgesa	995.412	446.629
23	Electricaribe	777.391	-55.813
25	EPSA	684.823	247.823
26	Electrocosta	668.605	3.018
28	Gas Natural	599.371	185.924

^A Diru-sarrera eta irabazi kopurua miloi pesotan daude kalkulaturik.

Iturria: "Las 100 empresas más grandes de Colombia", *Semana*, nº1.251, Bogotá, 2006ko apirila.

⁶⁵ "Así comenzó la inversión extranjera". *Semana*, 2006ko urriaren 28a.

20 Estaturenak ziren⁶⁶, aurten 14 bakarrik dira publikoak⁶⁶. Edozein kasutan, Ecopetrol estatala⁶⁷ oraindik herrialdeko enpresa nagusien zerrendako buru mantentzen da, honen atzetik konpainia multinazionalak (ikus 4 taula) ExxonMobil, Comcel, General Motors (GM) eta British Petroleum (BP). Gainera, Espainiako lau multinazional —Endesa, Telefónica, Unión Fenosa eta Gas Natural— Kolonbiako 30 transnazional nagusien artean beraien filialak jartzen dituzte. Baina, ordezkatzailer hauetako bakoitzaren salmentak bilduko balituzte eta balore bakar bezala zenbatuko, nola Endesa —Emgesa eta Codensaren jabe— herrialdeko laugarren konpainia transnazionala den ikusiko lukete eta Unión Fenosa —Electricaribe, EPSA eta Electrocosta— bederatzigarrena.

Finantza entitateteei dagokienez, oraindik nabarmenagoa da Espainiako enpresen gorentasuna: BBVA diru sarreraren arabera Kolonbiako laugarren bankua da —lehenengoa korporazio transnazionalak bakarrik kontutan hartzen badira— Santander-ak bederatzigarren postua hartzen duen bitartean.

5 TAULA KOLONBIAKO BANKU NAGUSIAK DIRU SARREREN ARABERA 2005ean

POSTUA	BANKUA	DIRU-SARRERAK ^A	IRABAZIAK ^A
1	Bancolombia	6.204.801	737.389
2	Banco de Bogotá	2.853.807	392.779
3	Davivienda	1.521.631	265.796
4	BBVA Colombia	1.509.198	107.399
9	Santander Colombia	971.404	30.137
15	Banco Granahorrar	697.880	104.194

^A Diru sarreraren eragiketen eta irabazien kopurua milioi pesotan adierazten da.

Iturria: "Las 1.001 compañías del año en Colombia", *Cambio*, nº 1334, Bogotá, 2006ko apirila.

02.10 Multinazionalen jardueren ondorioak

Kolonbia korporazio multinazionalen lehorreratzearekin herri eta inguru giroan eragin larriak izateaz ez da libratu. Petrolera eta meategiak, nekazal industriak, Konpainia elektriko eta elikagaien sektorea... hauetako asko enpresa transnazionalak eta giza eskubideen bortxaketak erlazionatzen

⁶⁶ Beheranzko joera honek 2007an jarraituko du, Telecom atzerriko enpresa modura kontabilizatzen dutenean eta ez estatu enpresa modura, eta zintzilik dauden pribatizazio batzuk biltzen dituztenean.

⁶⁷ Estatu enpresa ez dakit zenbat denboran, 2006 urtean Álvaro Uribereren exekutiboak Kolonbiako Petrolio Enpresaren (Ecopetrol) %20 pribatizatzeke asmoa zuela adierazi zuen



dituen kasuetan tartean egon direla adirerazten du honek. Adibidez, Multifruits bezalako konpainia nekazal industrialak, Delmonte multinazionalaren filial iparramerikarrak, banana, kautxu eta palmondoaren legez kanpo landatzea garatu duena, Chocón egitura paramilitarrez etekina atera du eta, hori guztiagatik, 2.500 afrokolonbiarren desplazamenduen ardura du, era berean jabetzen harrapeketena eta komunitatean 85 kaltetu utzi zituen ekintza paramilitarretarako lurralde honen erabilerarena⁶⁸. Baita ere Drummond bezalako erauzketa multinazionala, Kolonbiako zerbitzu militarrek bere instalazioak babesteko erabili izanagatik salatu izan dute eta baita bertara paramilitar ezagunei sartzen uzteagatik eta talde armatu hauek hiru sindikalista erailtzera bultzatzeagatik ere⁶⁹. O Anglo Gold Ashanti, bere Kolonbiako Kedahda filiala bide, Bolívar-ko Hegoaldean egiten du lan, non bere aktibitatean 1988 eta 2006 urteen artean ari zen bitartean, legez kanpoko 330 pertsonen erailketa eta ehun baino gehiagoren desagertzea salatu da⁷⁰.

Beti uste izan da Kolonbian aritzen diren transnazional askok talde paramilitarren finantziazioan zerikusia izan dutela eta, batzuetan, horrela dela frogatu ahal izan da. Hau Chiquita Brands bananera multinazionalaren kasua da —United Fruit Company zena—, 2007ko martxoan Kolonbiako Autodefentsa Batuakereko paramilitarrei ordaindu ziela Córdoba eta Urabán onartu zuen, beraien ekintzetan segurtasuna eman ziezaieten⁷¹, eta 2001 urtean, 3.000 fusil AK-47 eta bost milioi proiektil legez kanpoko taldeetara bideratu direla frogatu da⁷².

Baina maila internazionalen garrantzi handiena izan duten kasuak Nestlé eta Coca-Cola kasuak izan dira, hainbat buru sindikal erail izana egotzi zaie zuzeneko edo zeharkako ardurarekin: zehazki, Suitzako enpresari hamar pertsona hil izana leporatzen zaio eta Estatu Batuetakoari bederatzi⁷³. Salatutako kasuetako bat adibidez, Isidro Segundo Gilen hilketa da, Coca-Colako langilea eta Elikagaien Industriako Langileen Sindikatu Nazionala (Sinaltrainal)-eko burua, Antiokiako Urabán 1996ko abenduaren 6an hil zutena transnazionalaren botilaratzeko gunean. Bere emaztea bi urte beranduago hil zuten. Eta bitartean, hilketa guztien arduradunak zigorrik gabe jarraitzen dute.

Guzti hau ingurugiroari egindako kalteak kontuan hartu gabe, ezta oinarritu diren aktibitateetako, batez ere petreolio eta meategien multinazionalakoko herri indigenetan eragindakok ere.

⁶⁸ Tribunal Permanente de los Pueblos - Capítulo Colombia, "Sentencia de la Audiencia sobre biodiversidad", 2007.


⁶⁹ 2001ean, Valmore Locarno eta Víctor Hugo Orcasita, enpresako sindikatuko presidente eta presidenteordea talde paramilitarrek hil zituzten. Hillabete batzuk beranduago, Gustavo Soler, Locarno ordezkatu zuena erail egin zuten. ["A juicio en Alabama". *Semana*, 2007ko martxoaren 10a; "Oscuridad en la mina". *Semana*, 2007ko martxoaren 24a]

⁷⁰ Tribunal Permanente de los Pueblos - Capítulo Colombia, "Sentencia de la Audiencia sobre la minería", 2006.

⁷¹ "Bananera Chiquita Brands buscó aval de Departamento de Justicia de EE.UU. para pagar a 'paras'". *El Tiempo*, 2007ko martxoaren 16a.

⁷² Tribunal Permanente de los Pueblos - Colombia Kapitulua, "Sentencia de la Audiencia sobre agroalimentación", 2006.

⁷³ *Ibid.*



03

ESPAINIAKO INBERTSIOAK KOLONBIAN


Aurrerago azaldu den bezala, Espainia Kolonbiako bigarren atzerriko inbertsore nagusia izan zen herrialdea globalizazio prozesuetan sartu zen hamarkadan. Espainiako inbertsioak munduko ekonomia handien parean jarri zirela esan daiteke, herrialde baten eta bestearen BPGdren arteko desberdintasunak kontutan hartzean nabarmena dena: Estatu Batuetakoa Espainiakoa baino 15 aldiz handiagoa da. Gainera, azpimarratu behar da, 1992 eta 2001 urteen artean, Espainiak EBk inbertitu zuen ZIA guztiaren 6.600 milioi euroren %40 eman zuen gehi AEBk Kolonbian⁷⁴.

03.1

Lehorreratzea: urteak eta sektoreak

1996az geroztik Espainiako enpresak Kolonbian inbertitzeko aukera serio hartzen hasi ziren, BBVA Banco Ganaderoaren %40az jabetu zenean. Hurrengo urteetan beste konpainia handi batzuren lehorreratzea gertatu zen: 1997an, Endesak Bogotako Energia Enpresa erosi zuen; une berdinean, Gas Natural herrialdean sartu zen izen bereko enpresa erosiz eta Banco Santander-ek Banco Comercial Antioqueñoaren akzioen erdia baino gehiago erosi zuen; eta ondoren, 2000 urtean, Unión Fenosaren txanda izan zen, elektrizitatearen distribuzioaz arduratzen ziren Costa Atlántica eta EPSA konpainia elektrikoak erosi zituen. 2001ean Latinoamerikan eman zen krisiarekin, Espainiako multinazionalak urte horretan eta hurrengoetan erosketa handirik ez zuten egin, herrialde horretako kapitala mantentzen eta bermatzen aritu ziren. Azkenengo urteetan, inbertsio hauek berriro indartsu itzuli dira herrialdera, BBVAk 2005ean estatuarena zen Granahorrar bankua erosi baitzuen; berriz, Telefónica 2006an Telecom enpresa publikoaz jabetu zen.

5 GRAFIKA ESPAINIAKO INBERTSIOAK KOLONBIAN AZKENENGO HAMARKADAN



Iturria: Errepublikako Bankuaren datuen arabera egindakoa, 2006.

Espainiako inbertsoreen osaketa sektoreka begiratzen bada, ikusi daiteke bitan bakarrik biltzen dela inbertsioen gehiengoa: energia (Espainiako Estatuko ZIAREN %45a 1992 eta 2005 urteetan) eta finantza zerbitzuetan (%43)⁷⁵. Beste sektore batzuk bitartean, komunikazio (%6) eta eraikuntzarenak (%2) kasu, gutxiengoa dira. Beraz, argi gelditzen da Espainiako enpresa multinazionalen jarrera orokorra, hau da, barne merkatuari zuzentzen diren zerbitzu enpresak direla.

03.2 Espainiako multinazionalen presentzia

la Espainiako multinazional gehienek negozioak dituzte Kolonbian: Repsol YPF, Cepsa eta Gas Naturalek hidrokarburoen alorrean; Unión Fenosa eta Endesak elektrizitatearen sektorean; Ferrovial eta ACSk eraikuntzen sailean; BBVA eta Santander hango banku boteretsuen artean daude; Telefónica telefonia fijo eta mugikorraren sektorean jarrera indartsu batekin; gainera, Aguas de Barcelona, PRISA, Sanitas, Prosegur eta MAPFRE bezalako beste enpresa batzuk ere.

Aguas de Barcelona (Agbar) Espainiako konpainiak —Suez talde frantsesarena eta La Caixarena— 1995 urtetik inbertsioa du Kolonbian, Cartagenan ur banaketa eta saneamendu enpresa publiko-pribatu mistoa sortu zeneko garaian. Agbar izan zen lehiaketara aurkeztu zen bakarra. Konpainiak, 1999an, Cartagenako biztanlegoaren %90ak baino gehiago bere zerbitzuetara konektatuta zeudela esan zuen, urte bereko Munduko Bankuaren txostenean zera adierazten zen bitartean «ia biztanlegoaren heren batek; auzune txiroen zati handienak, ez duela urik ezta oinarritzko saneamendu zerbitzurik ere ». Batez ere, konpainiak ez zituen bere kalkuluetan aintzat hartu legearen arabera urbanizatutako inguruan bizi ez zirenak⁷⁶. Honen emaitza txirotutako auzoetara zerbitzuak zabaltzearen betebeharra ez betetzeaz gainera, tratatu gabeko hondakin-urak, periferiako inguruetako iturri diren urmael, zingira eta lakuetara isuritzean egindako kalte ekologiko eta sanitarioak izan ziren, eta etorkizunean gizartean izango duen eragina, uraren tarifak 2010erako %570ean igotzea izango da⁷⁷.

Uraren sektorean Madrilgo Canal de Isabel II eta Valentziako Tecvasa daude, Canal Extensia konpainiaren jabeak direnak. Aldi berean, azken hau Triple A Enpresa Taldearen bazkide, Barranquilla, Santa Marta, Soledad eta Puerto Kolonbian⁷⁸ zituen Agbar hartu zuen eta erabiltzaile askok ordaindu ezin izan zituen aintzinako emaitzekin.

1996an, oraindik Banco Bilbao Vizcaya zen BBVAk 329 milioi dolarren truke Banco Ganaderoaren %40az jabetu zen. Gutxinaka, finantza entitatearen akzioen portzentai handiagoa lortuz: 1998an

⁷⁴ William Chislett, 2003, *op.cit.*

⁷⁵ Atzerriko inbertsioaren erregistroak, Nazio Planeazio Departamentua, 2006

⁷⁶ David Hall eta Emanuele Lobina, *La privatización del agua en América Latina*, London, PSIRU, 2002.

⁷⁷ Tom Kucharz, "El comercio con los servicios y la privatización del agua. Tendencias globales". *Ecologistas en Acción*, 2005.

⁷⁸ María García eta Gonzalo Marín, "Una mirada al sector del agua". *Pueblos*, nº22, 2006ko uztaila.



%15a gehiago erosi zuen; 2000an kapitala areagotu zuen akzioen %85,1a lortzera helduz; 2001ean EEP bat burutu zuen %10 gehiago lortzeko, honek herrialdeko finantza talde nagusienetako izatera eraman zuen. Gero, 2005ean BBVA 423 milioi euroren truke Granahorrar estatu bankuaz jabetzean Kolonbiako hipoteka merkatuaren buru izatera heldu zen. Luis B. Juango Fiterok, Kolonbiako BBVAko presidentek dioen bezala, «bankuek urte ona izan genuen 2005ean», eta etorkizunerako zera iragartzen du «sektoreko eskuratze eta fusioek jarraituko dute eta emaitza entitate handiago eta indartsuagoak izango dira»⁷⁹.

Banco Santander-ak bere aldetik 1997an Banco Comercial Antioqueñoen (Bancoquia) %60a erosi zuen 151 milioi dolarretan. Gaur egun, Santander-a Kolonbian bere subsidiarioaren jabe da eta BBVArekin batera banku sistemaren %11arena⁸⁰.

Komunikabideei dagokienez, PRISA taldeak Caracol Radio erosi zuen 1999an nahiko modu berezian. Julio Mario Santo Domingok, gutxiengo bazkide estrategiko bat nahi zuenak, Espainiako taldeari Caracol Radioren %19a saldu zion, baina kontratu honen transakzioak prezio akordio bat zuen, honen arabera jabeak bere bazkideei hiru ondorengo urtetako finantza emaitzak ordaindu beharko lizkieke, Santo Domingok PRISA konpainia bere osotasuean entregatu behar izan zuen, kontratua bete ahal izateko⁸¹. Gaur egun, enpresa Kolonbiako bigarren irratiko operadorea da, RCNren atzetik.

Bestalde, Telefónica Kolonbian bigarren telefonia operadorea da eta 2006an Colombia Telecomunicaciones (Telecom) enpresa publikoaren %50a erosi zuen, telefonia fijoaren sareen jabea, 370 milioi dolarretan. Bi urte lehenago, Telefónica Móvilesen Bellsouth enpresa esatubatuarraren Latinoamerikako operazioak erosi zituen, eta mugikorren filial guztiak fusionatu zituen Movistar markan. Eta gainera, 2000 urtetik harrera telefonikoko Atento filiala zegoen, 4.500 langile baino gehiago dituen⁸². Hala, Telefónican parte hartzen duten konpainien diru sarrerak batzen badira (Telecom, Movistar, Telefónica Data eta Atento), egiaztatu daiteke Espainiako telekomunikazioen sektoreko burua dela Kolonbian, Compelen aurretik (Telmex Mexikok taldearena).

Azkenik, Kolonbian indartsu egin diren beste konpainia txiki batzuk daude. Hau Mapfreren kasua da, milioi eta erdi bezero inguru ditu, edo Prosegur segurtasun enpresarena, 2007ko otsailan Thomas Greg & Sons enpresa kolonbiarraren %60a erosiko zuela esan zuen, 1.400 langile baino gehiagorekin, eta herrialdeko bigarren postuan kokatu zen alor honetan⁸³.

⁷⁹ Proexport, 2006, *op.cit.*

⁸⁰ Mauro F. Guillén, 2006, *op.cit.*

⁸¹ "Colombia Inc.". *Semana*, 2005eko otsailaren 28a.

⁸² "1.600 empleos generará la tercera plataforma de Atento Colombia". *Dinero*, 2006ko apirilaren 12a.

⁸³ "Prosegur compra la segunda firma de seguridad de Colombia". *Cinco Días*, 2007ko otsailaren 20a.

TABLA 6 KOLONBIAN PRESENTZIA DUTEN ESPAINIAKO MULTINAZIONALAK

ENPRESA	SEKTOREA	KOKAPENA	FILIALAK
ACS	Eraikuntza	Herralde guztian	ACS Colombia eta Ferrocarriles del Norte de Colombia
AGBAR	Ura	Cartagena	Aguas de Cartagena
BBVA	Finantzak	Herralde guztian	Banco Ganadero eta Granahorrar
Canal Isabel II	Ura	Barranquilla eta Santa Marta	Triple A eta Metroagua
Cepsa	Petrolio eta gasa	Valle superior del Magdalena	Cepsa Colombia
Endesa	Elektrizitatea	Bogotá, Cundinamarca, Huila eta beste batzuk	Emgesa, Codensa eta Betania Zentral Hidroelektrikoa
FCC	Ura eta ingurumen zerbitzuak	Herralde guztian	Proactiva
Ferrovial	Eraikuntza	Herralde guztian	Ferrovial
Gas Natural	Gasa eta elektrizit.	Bogotá, Cundinamarca eta Santander	Gas Natural
Mapfre	Aseguruak	Herralde guztian	Mapfre Colombia
PRISA	Komunikabideak	Herralde guztian	Caracol Radio
Prosegur	Segurtasuna	Herralde guztian	Thomas Greg & Sons
Repsol YPF	Petrolio eta gasa	Arauca, Casanare, Putumayo eta beste batzuk	Repsol Exploración
Sanitas	Osasuna	Herralde guztian	Colsanitas
Santander	Finantzak	Herralde guztian	Banco Santander Colombia
Telefónica	Telekomunikazioak	Herralde guztian	Telecom, Movistar, Atento eta Telefónica Data
Unión Fenosa	Elektrizitatea	Kosta Atlantikoa eta Hegomendebaldea	Electrocosta, Electricaribe, EPSA eta Energía Social

Iturria: Enpresen txostenetatik aterata.

03.3

Espainiako hidrokarbuo multinazionalak: Repsol auzia

Repsolek Kolonbian sinatutako lehenengo kontratua 1987koa da, Cavo Norte Elkartearen %10eko partaidetza hartu zuenean⁸⁴. Bere lehenengo eskritura publikoa 1991an eman zen, eta zortzi urte pasatu arte, 1999an⁸⁵, ez zen hasi Araucan bere aktibitateak zabaltzen Arco enpresaren erosketa bide, San Miguel eta Capachoseko kontratuetan. Konpainiaren arabera, 2006an Kolonbian izan

⁸⁴ William Chislett, 2003, *op.cit.*

⁸⁵ Inbertsio atzeritarren erregistroa, Antolakuntzako Nazio Departamentua, 2006.

zuen ekoizpen garbia 2,1 milioi petrolio barriletakoa izan zen, hau da, 5.845 barril eguneko (bere munduko ekoizpenaren %1,1a), frogatu ahal ziren petrolio gordin erreserbak 5,7 milioi barriletakoak ziren bitartean (bere erreserba globalen %0,6a). Honela bada, Kolonbiako eguneroko ekoizpenaren %1,1eko parte hartzea du gutxi gora behera Repsolek eta, abiadura horretan, hiru urte eta erdi gelditzen zaizkio bakarrik produzitzeko. Konpainiak herrialdean presentzia gehitu duen arren azken urteetan— Kosta Atlantikoan zein Ekialdeko Ordokietan tekniko, esplorazio eta uztiapen kontratuak bere gain hartzen—, Repsol YPFren operazioak Araucako departamentuan garatzen dira batez ere.

Kontratatutako sailak eta beste korporazio transnazional batzuk dituzten irabaziak alderatzen badira, esan daiteke Latinoamerikako petrolio korporazio nagusiak, Repsol YPFk, ez duela aktibitate handiegirik burutzen. Hala ere hau horrela da, orainarte batez ere esplorazioan lan egin duelako— hau irabaziak jasotzen hasi aurretik eman behar den beharrezko pausua da— eta bere operazioen gehiengoak Araucako departamentuan egin direlako, non presente dagoen herrialde guztian zabaltzen diren bloke petroleroetan. Multinazionalen aktibitateak esan nahi dutenaren kasu paradigmaticoa da Arauca: petrolio esplotazioan hogeitau urte baino gehiago aritu eta gero; departamentua, Occidental eta Repsol enpresen presentziak ingurugiroan, herri indigena eta giza eskubideetan izan dituzten ondorioen lekukoa izan da.

Araucan, u'wa eta guahibo lurralde indigenetako hidrokarburoen esplorazioa eta esplotazio beregain hartu du petrolerak, enpresaren sarrera eta talde paramilitarren sorrerarekin kointzidentzia kezagarria izanez. Repsolek gaur egun petrolio kantitate handia ateratzen duen arren, ez dauka egoitza ofizialik Kolonbian. Hori dela eta, Araucako Repsolen kasuak, bistakoa den paradoxa argi uzteko balio du: Latinoamerikako petrolio multinazional nagusiak Kolonbian klandestinitatean lan egiten du. Horrela bada, Espainian motoziklismoa eta eguraldiaren iragarpena babesten dituen enpresa berdinak eta bere txostenetan herrialdean duen presentzia adierazten duenak, azpikontrata baten bidez lan egiten du eta ez dauka inongo logotipo edo ofizina edo potzuak identifikatzeko modurik, enpresa fantasma bat dirudiela esan daiteke orduan. Honek enpresek ingurura moldatzeko duten gaitasuna argi uzten du. Araucan, herriarentzat ia onurarik utzi ez duen hogeitau urte baino gehiagoko aktibitatearen ostean, Repsolek soberan daki ez dela ongi etorria eta bere operazioek kalte egin diezaiokela bere irudi korporatiboari. Horrexegatik, putzu berriak zulatzen dituen bitartean eta bere irabaziak gizentzen dituen artean, aurpegiak ez ematea aukeratu du. Hau, beste herrialde batzuetan egiten dituen bere aktibitateei buruzko iragarkiekin alderatzen badugu paradoxikoa gerta liteke, ez da beste irudimenezko paralelo bat eraikitzeke modua besterik, baina oraingo honetan mapatik desagertzeko eta isilean lan egiteko teknikaren bidez.

Repsolek herrialdean hiru era desberdin baina osagarritan egiten du lan: ECOPETROL estatu enpresarekin bazkide-tuta, Oxy transnazional estaubatuarrarekin partzuergoan eta bakarrik. Modu guztietan, Espainiako multinazionalaren presentziaren ezaugarri nagusia irabaziak lortu nahiak ematen dio, nahiz eta zeharka izan, baita ejerzituak gizarte buruei egiten dieten jarraipenak— judizializazio estrategiak talde paramilitarren ekintzak izkutatzearrekin tartekatuz— eta herrialde indigena eta ingurugiroarenganako errespetu falta.

Rondón eta Caño Limón lurren ekoizpenaren partizipazioan sarrerarekin, azkenengoa Cravo Norte Elkartearen parte, jada bermatutako lurralde baten agortu arteko erauzketaren irabaziak

7 TAULA REPSOL YPFren LUR ZABAL PETROLEROAK KOLONBIAN [2006]

36

BLOKEA	DEPARTAMENTUA	AKTIBITATEA	ESTENSIOA ^A	% ⁸⁶	OPERADOREA
Ligia	Magdalena eta Bolívar	Ebaluazioa	247.191	33	Oxy
Alcatraz	Antioquia eta Córdoba	Ebaluazioa	523.275	33	Oxy
Catleya	Boyacá eta Arauca	Esplorazioa	90.918	50	Ecopetrol
San Miguel	Arauca	Esplorazioa	43.366	100	Repsol
Cravo Norte	Arauca	Esplotazioa	26.738	35	Oxy
Capachos	Arauca	Esplotazioa	40.301	100	Repsol
Cosecha	Arauca	Esplorazioa	280.332	25	Oxy
Rondón	Arauca	Esplotazioa	10.038	6,25	Oxy
Arpa	Arauca	Ebaluazioa	399.420	12,5	Oxy
Zeta	Arauca eta Casanare	Ebaluazioa	302.584	12,5	Oxy
Río Túa	Casanare	Esplorazioa	294.100	6,25	Petrobras
Platanillo	Putumayo	Esplorazioa	14.204	35	Ecopetrol

^A Zabalera hektareatan neurtzen da.

Iturria: Repsol YPF urteko txostenak (2000 urtetik 2006 urtera) eta Hidrokarburo Agentzia Nazionala(2006).

bere gain hartu ditu. Logika berdinarekin aldiz, lurralde operadore bezala Okzidenteko aurrekariak bere egin ditu. Hau da, inteligentzia mertzenariodun konpainien humanitate minduari egindako krimenetaz ez da arduratu, ejerzitu iparramerikarraren laguntzaz, presiopean Plan Colombiaren onspena errazteko eta giza eskubide gaietan historialik txarrena duten unitate militarrek finantziazteko.

2002 urtetik, Repsolek Capachosen petrolio esistentzia iragarri zuen urtean, Tamen paramilitarismoaren indartzea hasi zen, hori dela eta herrialde zibilaren aurkako hilketak areagotu ziren, baita derrigortutako desplazamentuen mailak ere. Talde paramilitarren ekintzak hurrengo urteetan gogortu eta gero, Repsolek zultzeari eta petrolio ekoizteari ekin zion. Paradoxikoa da, herrian lan egiten duen enpresa nagusia izanda, lan egiten duen herrialdeak jasandako biolentzia tasak kontutan hartuta berak kalterik ez pairatu izana. Enpresaren isiltasunak, Tamen urte horietan

⁸⁶ Hemen konpainiak bere urteroko txostenetan (2000 urtetik 2007 urtera) argitaratutako informazio ofiziala biltzen da, hala nola Hidrokarburo Agentzia Nazionalak (ANH) erraztutako datuak ere. Edozein modutan, konpainiak alor bakoitzean duen partaidetza zehatza baino haratago -lortzen zaila dena informazio hauetan gardentasunik ez dagoelako- Repsolen enpresaren esku hartzea egiaztatzea Araucako sail petroleroetan garrantzitsua da.

kaltetatutako humanitatean egindako hilketekin erlazionatuta, gertatukakoarekin konplizitate pasibo direnaren benetako susmoak sor daitezke. Zeren eta; paramilitarismoak, ejerzituak eta judizializazio ugariak ezarritako giro beldurgarria eta gero, Repsol ingurune petrolero boteretsuetan sartu daiteke inongo gizarte oposiziorik aurkitu gabe. Izan ere herrialdeko errepresio eta biolentzia ekintza sistematikoak, azkenengo lau urteetan giza eskubideen bortxaketa kasuak izugarri igo dituenak, talde matxinatuen gaitasun militarren gain ondorio gutxi izan ditu, kalterik handiena gizarte erakundeek jasan dute.

Petrolio erreserba berriak ziurtatzearen aldeko apostuan u'was eta guahibos indigenen babesarekin gain ezartzen diren esplorazio guneetan oinarritu da, hala eta guztiz ere inoiz ez du multinazionalak lurralde honetan egiten duen petrolio esplorazioa azaltzeko aipamen publikorik egin. Kolonbiako Estatu araudia moldatzeaz arduratu da petrolio erauzketak murriztapen eta lege baldintza gutxiago izan ditzan. Testuinguru honetan, Capachos eta Catleyako petrolio blokeetan jarduteko legediaren kontraesanetaz baliatu da enpresa, lurralde indigenekin kointzdentzian. U'was komunitateak edozein petrolio aktibitatearen aurrean duen ageriko kontrako jarreraz gain, Repsol Ecopetrolen bazkidea da Catleya blokean. Bertan, Estatu enpresa da operazioa bere egiten duena, Araucako mendi barren guztia barne, u'wa komunitate indigenak ezartzen diren lekua, inguru honetako esplorazioak beraien bizitza eta kultura eragina dakar. Kasu honetan, Repsol YPF berriro ere esandako lurraldeetako aktibitatearen arduraduna da, OIT eta NBAREN akordio internazionalen kontra, baita beraien Gizarte Ardura Korporatiboaren barne politikaren kontra ere.

Baina Repsolek ere azken hogeitau urteetako esplorazio petroleroek eragindako kalte ekologikoen ardura ere hartu beharko luke, Ecopetrol eta Oxyrekin batera, Cravo Norte Elkartearena. Repsol partzuergo honen parte da, baina, bere ekoizpenaz onura ateratzeaz gain, berarekin daraman gizarte eta ingurugiro ardura ez du inoiz onartu. Kolonbiako bigarren petrolio aztarnategi nagusian parte hartzeak Espainiako enpresarentzat onura handia adierazten du, baina baita ekintzek uzten dituzten inguru giro pasiboengatik ardura ere. Beste batzuren artean, Lipako ekosistemako espezie garrantzitsuak desagertzeko arriskua, arrantza familia askoren bizimodua galtzekoa eta guahibas komunitateen -hauen bizimodua naturaren kontserbazioari estuki lotuta egon da- etengabeko desagertzea bezalako kalteak nabarmenduz.

Beraz, Araucako petrolio aktibitateetik ondorioztutako Repsolen dibisetan, Konpainiak ardura bat du, modu zuzenean edo zeharka, gizarte gatazka, gatazka politiko eta kulturaletan, lurraldeko ekosistemen suntsiketan eta kultura indigenei egindako erasoetan. Beste korporazio transnazional batzuk bezalaxe, ez du gatazka armatua konpontzen lagundu ezta harri koskorrik ezarri ere desberdintasunak leuntzeko. Izan ere, guztiz kontrakoa gertatu da: petrolio duten lekuetan egoera larritu egin da.

Gainera, Repsolekin batera, Kolonbian beste bi Espainiako hidrokarbu enpresa daude: Cepsa eta Gas Natural. Cepsa, Total enpresa erraldoi frantsesak kontrolatzen duena eta, gutxiago, Banco Santander-ak, Kolonbiako filiala eratu zuen 2000 urtean eta 2001ean bere aktibitateari ekin zion. Konpainiak Frantziako Hocolen akordio bat sinatu zuen Magdalena erreko goiko haranean zeuden hiru blokeren %33,3ko partaidetza lortzeko eta, gaur egun, Petrobrás eta ECOPETROL Brasilgo partzuegoan %15eko partaidetza du. Gainera, Cepsak Espinal Profundo blokean esplorazioak

egiten ditu, %50eko partaidetzaz eta era berean Torbellino blokean, Magdalena erreka goiko haranean kokatzen dena, %100aren jabe da inguru honetan⁸⁷. 2007ko urtearen hasieran, Cepsa, Hocol eta Petrobrasek Huila departamentuko nekazal inguruan petrolio aurkikuntza bat iragarri zuten, petrolio erreserbak 41 milioi barriletekoak izan daitezkeen lekua⁸⁸.

Bestalde, Gas Naturalek Bogotako, metropoli inguru eta Bucaramangako banaketa eta komertzilazioa bereganatu zuen. Multinazional honek herrialdean Gas Natural del Oriente, Gas Natural Cundiboyacense eta Gases de Barrancabermeja ordezkatzailen bidez lan egiten du. Milioi eta erdi bezero baino gehiago ditu eta bere salmentak %113an gehitu ziren azkenengo 5 urteetan, zerbitzu hau duten etxe gehiago eta gasa darabilten automobil gehiagoren ondorio bezala. Repsol YPF jarraitu duen ikustezin estrategiaren parean —bestalde, gas enpresako akziodun nagusia dena—, Gas Naturalek irudi atsegina garatu du Kolonbian, ekitaldi publiko eta gertaera kulturalak babesten. Gainera, zentzu honetan, Gas Naturalek herrialdean garapen garbiko mekanismoko (MDL) proiektu bat ezarri du—Espainiako enpresaren lehenengoa eta Kolonbiako gasaren sektorean ematen den lehenengoa—, Bogota eta Cundinamarko lurraldean fuel oila gas naturalagatik ordezkatzear datza⁸⁹.

03.4 Espainiako elektrizitate multinazionalak: Unión Fenosa auzia

Kolonbiak sortzen duen hidroelektikaren % 93a bost enpresen esku dago (Endesa, Unión Fenosa, ISAGEN, AES eta EPM). Hauetatik hiru herrialdeko elektrizitate produkzioaren ia erdia kontrolatzen duten korporazio transnazionalak dira. Kolonbian Espainiako enpresen nagusitasuna elektrizitaeen ikaragarria da: generadora eta banatzaileen diru sarrerak batzen badira; zera frogatu daiteke, Endesa setoreko lehenengo transnazionala dela eta Unión Fenosa bigarrena.

Horrela bada, bere salmenta eta sortzeko gaitasunaren arabera, Endesa energia elektrizitate multinazional nagusia da. Aldiz, Endesak Bogotá eta Cundinamarcan bakarrik lan egiten duen bitartean, herrialdeko merkatu aktibitate eta industrial gehiena biltzen duenak, Unión Fenosak, aktibitate bera bederatzi departamentutan dauka eta, ein handi batean, zerbitzu elektrikoa herrialde txirotuago bati eskeintzen dio.

Endesak Kolonbian hiru filial ditu, bik generazioarekin dute zerikusia (Emgesa eta Betaniako Zentral Hidroelektikoa) eta bat banaketa elektrikoaz arduratzen da (Codensa). Pribatizazioaren gorakada heldu zen arte, Bogotáko Energia Enpresa (EEB) publikoa zen eta herrialdeko hiriburuko generazio, garraio eta banaketa elektrikoaz arduratzen zen. 1996an, enpresaren berregituraketa hasi zen,

⁸⁷ "Cepsa compra el 33,3% de tres bloques petroleros en Colombia". *El País*, 2006ko otsailaren 5a.

⁸⁸ "Cepsa halla petróleo en el sur de Colombia". *El Tiempo*, 2007ko otsailaren 16a.

⁸⁹ "Gas Natural registra un proyecto de mecanismo de desarrollo limpio en Colombia". Noticias de la Fundación Entorno, 2006ko azaroaren 22a.



hiru konpainiatan banatuz: Emgesa generadora, Codensa banatzailea eta EEB garraiatzailea. Behin aktibitateen banaketa egiaztatu eta gero, lehenengo bien akzioen %48,5a salgai jarri zen, eta Endesa-Enersis talde transnazionalak erosi zuen 2.170 milioi dolarretan⁹⁰. Gero, Endesak Enersisen aktibitateak bere egitean, bi konpainiak Espainiako lehenengo elektrizitate transnazionalaren aterkipean babestu ziren. Lorpen hauetatik aurrera, Endesa Kolonbiako elektrizitate sektorearen buruan kokatu da: 2005 urtean, bere irabaziak 209 milioi eurotakoak izan ziren. Aldiz, barealdi ekonomiko hau gestio kudeaketa eskasari kontrajartzen zaio. Privatizazioa gertatu zenetik mugimendu irregularrak ematen joan zirelako; langileei akzioak kentzea, prozesuaren erabakietan parte hartzeko eskubiderik izan ez zezaten, Gainera, negozioa errentagarri izateko planean, Endesak ez zituen aintzakotzat hartu langileen eskubideak: taldeko hitzarmena okertu zuen eta 2.000 langile kaleratu zituzten edo borondatezko erretiroa hartu behar izan zuten. Bestalde, txirotutako herrialdeetako erabiltzaileek azpiegituren inbertsioak fakturaren kargu bat gehiago bezala eman izana salatzen⁹¹.

Hori bai, Kolonbiako Endesaren aktibitate guztietatik, agian ezagunena Muñako urtegiaren emandako ingurugiro kaltearekin zerikusia duena da, Cundinamarco departamentuan. Enpresa honek, Emgesarena denak, Bogotá erreka ura ponpatzen du energia sortzeko. Baina erreka hiriburuko ur hondakinak daramatza, honen emaitza urtegiaren kutsatzea da. Presako usain txarrak zabaltzea ekiditzeko, Emgesak buhon izeneko ur landare bat landatzea erabaki zuen, honela egoera eskastuz, eltxoen kopurua ugartuz. Horrela, hauek inguruko aktibitate normala galerazi dute eta Sibateko bizilagunen artean gaixotasunak areagotu dituzte, urtegitik gertuen dauden herrietan⁹². Beti bezala, Herriaren Defentsariak Bogotá erreka ponpaketak uztea eta honen garbitzea planteatzen duen bitartean eta konpainiak bere ardura ez dela dioen artean, herria da Muñako urtegiaren kutsadurak eragindako ingurumen kalteak bizi dituen.

Bestalde, Unión Fenosa 2000 urteko azaroan hasi zen bere aktibitateak garatzen Kolonbian, Kostalde Atlantikoko Elektrifikadora (Electrocosta) eta Karibeko Elektrifikadora (Electricaribe) erosi zituenean, biak elektrizitatearen banaketa eta komertzializazioan lan egiten dute. Hilabete beranduago, Pazifiko Energia Enpresa (EPSA), elektrizitatearen generazio, garraio, banaketa eta komertzializazioan aritzen zen enpresa erosi zuenean bere presentzia osotu zuen herrialdean Hasieran, Kostalde Atlantikoko elektrifikadorak galerak bakarrik izan zituzten. Baina egoera hau bukatu da: 2006an, Electrocosta irabaziak sortzen hasi da. Aldiz, EPSA, Unión Fenosaren beste negozio ardatza, beti izan da errentagarria eta herrialdean negozioak mantentzen lagundu zion. Beraz, gaur egun, Espainiako multinazional elektrikoaren aktibitate ekonomikoak bi ingurutan oinarritzen dira –Karibeko Kosta eta Hegomendebaldea– eta osasuntsu daude: joan zen urtean esplotaziozko irabaziek %53,9an egin zuten gora⁹³.

⁹⁰ Egia esan, Endesa Espainiako enpresak %24,5a lortu zuen eta Txileko Enersis eta Chilectrak %12,5a eta %9,1a lortu zuten hurrenez hurren.

⁹¹ CENSAT, *GATS, liberalisation and privatisation of the power sector in Colombia. The Endesa case*, Bogotá, 2002ko azaroa.

⁹² David Llistar eta Tatiana Roa, "El caso del embalse del Muña: inversión pestilente en manos de Endesa". *Ecología Política*, nº 30, Bartzelona, Icaria, 2005eko abendua.

⁹³ Unión Fenosa, "Informe de Resultados enero-diciembre de 2006", 2007.

8 TAULA UNIÓN FENOSAren ENPRESA FILIALAK KOLONBIAN

ENPRESA FILIALA	KOKAPENA	AKTIBITATEAK ^A				%	IRABAZIAK ^B	
		G	T	D	C		2005	2006
Electrificadora de la Costa Atlántica (Electrocosta)	Córdoba, Bolívar eta Sucre			X	X	71,0	-28,50	30,1
Electrificadora del Caribe (Electricaribe)	Atlántico, Magdalena, Cesar eta La Guajira			X	X	71,6	-52,23	-17,1
Empresa de Energía del Pacífico (EPSA)	Cauca eta Cauca Harana	X	X	X	X	63,8	49,8	37,4
Energía Social de la Costa	Kostalde Atlantikoko 7 departamentu				X	71,1	-3,69	-3,65
Energía Empresarial de la Costa	Kostalde Atlantikoko 7 departamentu				X	71,0	-0,46	-0,21

^A Aktibitateak: G: Generazioa; T: Garraioa; D: Banaketa; C: Komertzializazioa.

^B Irabaziak milio eurotan azaltzen dira.

Iturria: Sistema Único de Información de los Servicios Públicos, 2007. [2005eko datuak urteroko azkeneko lapurpenari dagozkio, 2006koak akordiorik gabekoak diren artean]

Behin Kolonbian ezarri zenean, Unión Fenosak bere lan malgotasuna gehitu zuen, soldaten gutxitzea martxan jarri zuen eta talde akordioetan ezarritako pentsioak kendu zituen. Gainera, sindikatuak ahultzen lagundu zuen, aurrejubilizazio eta abantailak eskeiniz kasu batzuetan. Munduko beste leku batzuetako transnazionalak egiten ari diren bezala, bere estrategia lanik gehienak kanporatzea izan da. Horrela, azpikontratazioak lan ezegonkortasuna gehitu zuen eta lan istripu eta kuadrilla eta komunitateen enfrontamenduen ardura saihesteko, zerbitzuaren kalitate eskasa dela eta tentsio ingurugiro batean sortu zen beraz enpresa.

Bere aktibitate guztietatik irabaziak lortzea zenez lehentasun nagusia, Unión Fenosa Karibeko Kostan zerbitzu elektrikoa ematen zuen enpresa bakarra izateaz baliatu zen. *Ordaintze* ezaren kultura esistitzen zenaren aitzakiaz—kulturarekin zerikusi gutxi duten arrazoiengatik ematen da hau—, elektrizitate fakturen igoera handia eman zen. Famili gastuaren igoera zerbitzu publikoetan, pribatizazioa gertatu zenetik, hain altua izan da 2002an, departamentu Atlantikoko txirotutako familia batek bere diru sarreren erdia, jada baxuak direnak, Electricariberi ordaintzen diola argiaren fakturan.

Unión Fenosaren filialen diru bilketa eskasean, zerbitzu tenikoaren kalitate eskasak eta jendea pozik ez egoteak ere eragina izan du, honek *ez ordaintzeko jarrerari* bidea eman dio. Zerbitzuen kalitateari irabaziak aurre jartzeak kontadoreak era irregularrean berriz jartzea, gain fakturazioa edo iruzur egiteagatik isunak jartzea ekarri zuen. Gainera, Unión Fenosaren gastuen urritzea argia mozte handien bidez egiten zen errazionamendu modura, horrela ur, osasun eta hezkuntza zerbitzuak larriki kaltetuz. Eta nekazal lurraldeek, inbertsioa errentagarria egin zezaten inbertsio publikoak izan arte, ez dute arretarik izan.

Guzti honek herri protestei bide eman zien 2003an, faktore erbakiorra izan ziren Electrocosta, Electricaribe eta erakunde publikoak kontzentrazio mahaietan jartzea ez beste erremediorik izateko

orduan. Hor hartutako akordioak ordea ez ziren konponbidea izan, arazorik larrienak egoten jarraitu zutelako. Gainera, herriaren protesten atomizazio garrantzitsua gertatu zen, batez ere akordioak ez betetzearen ondorio bezala, kontrol instituzio eta Union Fenosako filialen arteko elkar bizitza, eta azkenik, salaketen arduradun zirenen mehatxuak. Zentzu honetan, garrantzi handia izan zuen Karibeko Kostak *parapolitika* ezarridun lurradea izanak: talde paramilitarren ekintzek 27 gizarte bururen hilketak utzi ditu. Espainiako multinazionalak bestalde, bere Gizarte Ardura Korporatiboko Txostenean akordatutako pertsonekin hartu zituzten konpromesuek ez betez, ez du inoiz egoera salatu.

2003an Union Fenosaren filialen bideraezintasuna eman zenean, administrazioak porrota ekiditeko neurri batzuk hartu zituen: enpresen kapitalizazioa eta kontsumora diru laguntza gehitzea eta azpiegituretan inbertsio publikoen sarreren gehitzeak. Izan ere, estatu fondoetako diru aportazioa enpresaren errekupeazio ekonomikorako gakoa izan da. Hau da, Kolonbiako Estatuak paperik txarrena hartu du bere gain Kostako elektrizitate enpresen pribatizazioaren ostean: akzio gutxienengoa duen akzioduna izanik, aktibatetik irabazi txikiena ateratzen duena da, baina aldi berean, inbertsio gehien egiten dituen konpainiek diru sarrera gehiago izan ditzaten.

Baina zalantzarik gabe, Electrocosta eta Electrocariberen krisia gainditzen lagundu zuena Gizarte Energiaren sorrera izan zen. Enpresa honek berrikuntzari Gizarte Ardura Korporatiboko sari bat lortu zuen ere, enpresa berak bere iragarkian dioen bezala «txiroenen beharren arabera sortutako neurriko enpresa bat zortzean datza»-lako. Hori bai, aurpegi adeitsu honen ostean oinarrizko zerbitzuen funtzionamendua baliabide ekonomiko gutxien dituen herritarren esku uzten duen konpainia bat aurkitzen da. Eta gainera, gizartearen desmobilizatorako balio izan du, ordainsari ekonomiko baten truke, gizarte mugimenduko buru asko auzoko enpresa arduradun izatera pasatu baitira. Horrela, auzoetan enfrentamenduak sortu dira eta organizazio komunitarioenganako mesfidantza zabaldu da. Gizarte Energiaren helburua gestio iraunkorreko eredu bat sortzea izan da, Konpainia honek diru laguntzen sistemak jarraitzen badu bakarrik dauka zentzua.

Unión Fenosaren ingurugiro kalteei dagokionez, hauek bereziki Kolonbiako Hegomendebaldean lekutzen dira. Han EPSA bere filialaren insatalazio hidroelektrikoek ingurugiro eta gizarte kalte larriak egin dituzte. Adibide modura, bi kasu paradigmatico aztertu dira. Lehenengoa Anchicayá Beheko urtegiakoa, EPSAk arduragabekeriak jokatu zuen 2001eko uztailaren 23an, basa isuri izugarria bota zuen. Jarrera arduragabea izan zuen, inoiz ez zuelako izan zitzakeen ondorioei buruzko ikerketarik egin, ezta afrikarren ondorengo komunitateekin ezta ingurugiro autoritateekin ere. Gainera, Unión Fenosak ardura hartu du Anchicayáko urtegiaren ingurugiro pasiboena, duela hogeitau urte baino gehiago eraiki zena.

Bigarren kasua Salvajina urtegiak biztanlerian eragindako kaltea da. Urtegi honek urez bete zuen bertan bizi zen biztanleria indigena, afrikarren ondorengo lurra eta nekazaria, hauen desplazamendua bultzatuz. Eta era berean, herriko ekonomiarengan eragina izan zuen eta ibai komunikazio sareak aldatu zituen. Unión Fenosak, beraiek ez dutela honekin zerikusirik dio beraien aktibitateak urtegia eraiki ostean egin zituztelako, konpainiak bere kontuetan zentzualen sortzen denaren diru sarrerak batzen ditu, beraz aberastasunak errazten dizkion efektu ezezkorregatik



erantzun behar du. Bestalde, bere ingurugiro pasiboez ez arduratzeaz gainera etorkizun hurbilean gehiago sor ditzake, Ovejas erreka Salvajina urtegiara desbideratzeko proiektua baitu, desplazamendu eta lurraldearen suntsiketaren egoera are gehiago larrituko da horrela.